



6€ **EUSKAL HERRIKO** *Natura*

138
ZENBAKIA 2022ko AZAROA-ABENDUA



Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak)
diruz lagundua

HEGATXABAL ARRUNTA
BELATXINGA MOKOHORIA
BIRIGARRO ARRUNTA
ERREKATXINDORRA
TXANTXANGORRIA
BUZTANLUZEA
HONTZA ZURIA
MENDI-TXIRTA
HAITZ-ENARA
GALAPERRA
PAGAUSOA
URUEIA

TXIRRISKIL ARRUNTA
LERTXUN HAUSKARA
AMIAMOKO ZURIA
AMILOTX URDINA
TXIO IBERIARRA

GORBEIAKO NATUR PARKEKO HEGAZTIAK


ESPECIES EXÓTICAS INVASORAS-ESPEZIE EXOTIKO INBADITZAILEAK
HORIEN SARTZEA EKIDIN!



Bisoi amerikarra



Panparen lumaduna



Floridako dortoka



Karamarro gorria



Liztor asiarra

araba álava
foru alundia diputación foral

ESPEZIE EXOTIKO INBADITZAILEEN HEDAPENA ARRISKUTSUA
DA BIODIBERTSITATEARENTZAT. EZ SARTU



EUSKAL HERRIKO
NATURA

DESAGERTZEKO ZORIAN DAUDEN ESPEZIEAK DEFENDATZEKO ELKARTEA

EUSKO JAURLARITZA

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

ZURE NATUR ETA ZOOLOGIA
ALDIZKARIA

AURKIBIDEA

138.zk - 2022ko AZAROA-ABENDUA - 6€



Gorbeia	4
Lepizulia	5
Okil handia	6
Okil txikia	7
Hegatzabal arrunta	8
Pirripioa	8
Haitz-enara	9
Enara azpizuria	9
Mendi-txirta	10
Buztanikara horia	11
Txantxangorria	12
Tuntun arrunta	13
Buztangorri iluna	14
Pitxartxar burubeltza	15
Harkaitz-zozo gorria	16
Birigarro arrunta	17
Errekatxindorra	18
Txinbo kaskabeltza	19
Sasi-txori arrunta	19
Txio iberiarra	20
Mendi-erregetxo	21
Amilotx urdina	22
Kaskabeltz handia	22
Pinu kaskabeltza	23
Gerri-txori arrunta	24
Buztanluzea	24



Antzandobi arrunta	25
Eskinosoa	26
Belatxinga mokohoria	27
Araba zozo pikarta	28
Txonta arrunta	29
Txirriskil arrunta	30
Karnaba	31
Mokolodia	32
Berdantza horia	33
Martin arrantzalea	34
Zata arrunta	35
Pagauso	36
Urubia	37



Hontza zuria	38
Sai arrea	39
Arrano sugezalea	40
Arrano beltza	41
Miru beltza	42
Aztorea	43
Zapelatz arrunta	44
Mirotz zuria	45
Belatz gorria	46
Lertxun hauskara	47
Amiamoko zuria	48
Galaperra	49
Uroilanda handia	50
Kuliska txikia	51
Istingor arrunta	51



EUSKAL HERRIKO
NATURA

Zuzendaria: Fernando Pedro Pérez.
Erredakzio-burua: Ruben B. Caballero.
Kolaboratzaileak: Nerea Urtaran, Miren Alustiza, Oskar Azkona, Jon Lopez, Kepa Murua, Jon Zubiri, Elena Azkarreta, Xabier Aramburu, Kepa Alustiza.
Argazkilaritza: Eduard Urkizu, Aitor Zubizarreta, Xabier Urreta, Izaskun Loidi.
Maketatzailea: Cristina Urionabarrenetxea.
Legezko gordailua: BI-2452-02.
ISSN: 1695-4645 Aleak: 2.000

Erredakzioa:
Av. Madariaga, nº. 47-6º C - Esc.1 - 48014 BILBAO.
Tel: (94) 4 75 28 83. e-maila: adeve1991@gmail.com

Argitaratzailea:
Iraungitze Zorian Dauden Espezieak
Defendatzeko Elkartea.



EHAA-1996ko otsailak 7, asteazkena.
3/1996 DEKRETUA, urtarrilaren 9koa, Elkartea
herri-onurakoa dela aintzatesten duena.



HARPIDETZA-ORRIA

Urteko kuota: Hamabi ale urtean: 36 euro. TLF: 94 475 28 83

GORBEIAKO HEGAZTIAK



Gorbeiaiko mendialdea Euskal Herrian dago, Araba eta Bizkaiko lurralde historikoen mugetan, eta Kantauri itsasora eta mediterranearen arrora isurtzen diren urak banatzen dituen mendilerroaren alde nagusia da. 1994-eko ekainaren 21ean Eusko Jaurlaritzak Parke Natural izendatzea erabaki zuen, eremu honen natur ondarea babesteko, nekazaritza eta abeltzaintzaren garapena errazteko eta ezagupea eta gozamena sustatzeko.

Natur Parkeak gutxi gorabehera 20.000 hektareako lurralde garaienak hartzen ditu: Areatza, Artea, orozko, Zeanuri eta Zeberio Bizkaian, eta Zigoitia, Zuia eta Arkabustaiz Araban.



Hegoaldeko isurialdea mendi-mazela uhin-dukua da eta iparraldekoa aldiz, maila-aldaketez, sakonunez eta gandor zorrotzez beterik dago: mendizaleak kilometro gutxi batzuk eginez joan daitezke tontor gorenaren 1.482 metroko altueratik zenbait haran-hondoren 250 metroko altueraraino. Araba lurraldeko akzidente topografikorik aipagarrienak dira batetik, Baias eta Altube ibaiak, eta bestetik. Oketa (1.029 m), Arroriano (1.344 m) eta Berretin (1.221 m) mendiak. Bizkaian aldiz, aipatzekoak dira. Arnauri eta Arratia ibaien buruak, eta Oderiaga (1.243 m), Lekanda (1.309 m) eta Aldamin (1.373 m) mendien tontorrak.

Paisaia honen erdialdean, lurralde historikoen administratziomugatzat har daitekeen burdinazko egundoko gurutzea dago, Natur Parkeari izena eman dion tontorra nahastezin egiten duena.

XIX. mendetik hona mendizaleek miretsi duten askotari-ko paisaia eder hau da Parkera urtero etortzen diren milaka bisitariak erakartzen dituen. Edonola, paisaia arrokak, ura, luraren erabilerak, landaredia eta fauna bezalako natur giza osagai askoren elkarreraginaren irudirik nabarmenena baino ez da. Hortaz, nahi duten bisitariak paisaia berezi honetara areago hurbildu eta Gorbeiaiko Natur parkea osatzen eta bereizten duten osagai horietako edozein sakonkiago ezagut daiteke; gozatzeko mundu erakargarri bat aurkituko dute orduan. Parkeak duen natur ondare garrantzitsuen barruan, hegaztiak dira zalantzarik gabe osagai erakargarrienetako bat. Mota eta itxura askotakoak dira eta gainera, ederrak eta behatzeko errazak; hori dela eta, gero eta erakargarriagoak dira babesturiko guneetara doazen bisitari-entzatzat eta bestalde, gero eta erabiliagoak dira natur getetarako didaktika-baliabide modura.

LEPITZULIA

(*Jynx torquilla*)

Okilen familiakoa izanik ere, ez du oil itxurarik. Gainera, beste okilek ez bezala, migratzeko ohitura du eta, beste okilak bezala zuhaitzen zuloetan ugaltzen bada ere, ez da bere habia egiteko gauza. Bestetik, haren hegaldia ez da uhindua, gainerako okilena bezala, nora ezekoa baizik. Ohitura urguriak eta inola ere deigarria ez den lumadia duenez, oharkabe gelditzen da espezie hau. Halere, kantu ozena du, Okil Txikiarenarekin erraz nahas daitekeena.

Hori dela eta, harrigarria da Aristoteles-ek k.a.ko IV. mendean dagoeneko deskribapen aparta egin izana, honek agerian uzten du greziar filosofo eta naturazaleak zuen behatze-ahalmen izugarria. Bai latinezko izenak (torquilla) bai euskarazko (Lepitzulia) eta gaztelaniazko (Torcecuello) izen arruntek erreferentzia egiten diote arriskua sumatzen duenean burua biratzeko duen gaitasunari.

Inurri-txori ere esaten zaio (gaztelaniaz Hormiguero), inurriak haren dietaren zati nagusia baitira. Okil berezi hauek martxoaren erditik aurrera sumatzen dira gure geografian; orduan entzuten dira ar heldu berriek bere lurraldea aldarrikatzeko egiten dituzten lehen erreklamoak. Irailaren bukaeran desagertzen dira, Europako azken migratzaileek gure latitudeak zeharkatutakoan.

Lepitzuliak sakabanaturiko zuhaizti hostoerorkorrek dituzten eremu irekietan bizi dira. Euskal Autonomi



Erkidegoaren lurraldean 1.400 bikote ingurukoa bide den populazioa estimatu da, eta horietako gehienak kostaldeko landazabaletan banaturik bide daude. Edonola, atzeraka doa

oro har Europa basoko banaketa-eremuan eta ziurrenik bai atlantiar Euskal Herrian ere, izan ere, pentsatzekoa da bertan nekazaritza-rekin loturiko paisaia basogintzari loturiko jardueren kausaz eraldatu izanak hegazti honen populazioen endekapen nabaria eragin duela. Gorbeiaiko Parkean oso espezie urria da, baso hostoerorkorren argiune eta ertzetan eta landazabaletan sakabanaturik bikote bakan batzuk dituen.



OKIL BERDEA

(*Picus viridis*)

Nagusiki berde kolorekoa den okila, ipurtxuntxur hori-ka, begi-alor beltza eta kapirore gorrimina dituen. Gainerako okilak bezala, haien erreklamoak salatu ohi ditu, baina zailagoa da zuzenean ikustea. Okil Berdearen kantua, algara edo irrintzi ozena izaten da, baina gutxitan ateratzen du danbolin- hotsk.

Lepitzuli urguriak bezala, elikagaiak zoruan bilatzen ditu batez ere; izan ere inurri helduak eta haien pupak dira hegazti honen harrapakinek ohikoenak.

Espezie geldikorra da, eta mota guztietako zuhaizdun eremuetan aurkitzen da; edonola, haren habitat motaren gogokoena habiak egiteko zuhaitz helduak dituzten paisaia erdiirekiak izaten dira.

Gorbeiaiko Parkean ohikoa izaten da mota guztietako baso hostoerorkorretan, baina urria izaten da, edo bat ere ez dago, konifero-landaketetan.

NEURRIAK: luzera: 30-33 cm. Pisu: 180-220 g.



OKIL HANDIA (*Dendrocopus major*)

Lumadia nagusiki zuri-beltza duen okila. Gainera, nabarmenak dira hegoen gainaldeko barne-ertze-ko orban zuri handia eta buztan azpiko kolore gorria. Ar helduak erraz bereizten dira garondo gorriagatik, eta gazteak, kapirote osoa gorria dutelako udazkenaren erdira arte. Gazteek ere gorria izaten dute kapirotera eta horrela irauten die azaroko muda arte. Erreklamoan ez ditu irrintzirik egiten, beste okil batzuek bezala, chic zorrotz eta leherkaria baizik. Danbolin-hotsa ateratzen du sarri udaberrian, hildako zuhaitzen bat mokokatuz. Batez ere intsektuek elikatzen da, bereziki zura indus-



katzen duten espezieen larbez. Halaber jaten ditu haziak, fruituak, baiak eta bai beste hegazti batzuen arrautzak eta kumeak ere.

Ohiko baso-espeziea, zuhaitz helduak dituzten basoetan aurkitu ohi dena. 4-7 arrautza erruten ditu eta, okil gehienek bezala, bere habiak zuhaitzak zulatuz eraikitzen ditu. Euskal Autonomi Erkidegoko pagadi, harizti eta ameztietan ondo banaturik dago, eta bereziki ugaria izaten da Arabako hegomendebaldeko Pinu Gorriko baso naturaletan. Laurogeiko hamarkadaren bukaeraz geroztik atlantiar eremuan nabariki zabaldutako delarik, gaur egun deigarria da Intsinis Pinuko landaketetan ezartzeko orduan duen arrakasta.

NEURRIAK: luzera: 22-23 cm. Pisua: 70-90 g.



HEGATXABAL ARRUNTA (*Alauda arvensis*)

Espezie honek gainalde arrea du marra beltzekin eta azpialde zurixka bular zirrintadunarekin. Errazago bereizten da hegan ari denean, orduan ateratzen baitu bere kantu ozena, zenbaitetan altuera handi batetik. Haren Lumadian nabarmenak dira, halaber, gandor laburra eta buztanaren kanpo-ertzak eta hegoen barne-muturrak apaintzen di-tuen kolore zuria ere. Ohikoa izaten da eremu irekietan. Euskal Autonomi Erkidegoan oso ugaria da mediterranear isurialdean, batez ere, zereal-laborantzak eta larrediak dituzten eremuetan. Atlantiar lurraldean, espezie honen populazioak mugaturik daude 800 metrotik gorako txilardi eta larredietara. Parkeari dagokionez, batez ere aurkitzen da Gorbeiaiko tontorraren inguruko larredietan, Oketako txilar-dietan eta Ubixetatik Usategietareino doan mendilerroan. oso dentsitate aldakorak izaten ditu (1,75-8,1 hegazti/ 10 hektarea).

Neguan, bertako hegatzabalok, lurralde hauek utzi eta Parketik kanpoko haran-hondoetara edo zereal-lautadetara



jotzen dute. Bestetik, oso ugariak izaten dira kanpotik etorritako aleak, Eskandinaviako eta Baltikoko herrialdeetatik abiatuta lurralde hau migrazio-garai bietan zeharkatzen dutenak. Udazkeneko pasea, irailaren bukaeratik azaroaren erdira arte gertatzen da, eta udaberrikoa aldiz, otsailaren erditik martxoaren azken egunetara arte, bestea bezain nabaria ez bada ere.

NEURRIAK: luzera: 18 cm. Pisua: 33-45 g.

OKIL TXIKIA (*Dendrocopus minor*)

Txolarre baten tamainako okil ñimiñoa. lumaldi zuri-beltz deigarria duena. Gibelaldeak eta hegoek marra zuri ugari izaten dituzte, baina ez dute aurreko espeziearen bereizgarriak diren hego-orban zuririk, ez eta buztan azpiko gorriak ere. Arrak kapirote gorria izaten du, eta emearena aldiz, zurixka izaten da. Ikusten zaila da eta sarritan Lepitzulliaren antzekoa den erreklamo bereizgarriagatik sumatzen da: apur bat ozenagoa eta luzeagoa den "pii-pii-pii-pii" moduko hotsa.

Habia eraikitzeko, adar bat zulatzen du. Sarreraren diametro txikiagatik (3 cm) bereiz daitezke Okil Txikiaren habiak Okil Handia edo Okil Berdea bezalakoek egindako habietatik (6-7 cm).

Euskal Autonomi Erkidegoko baso hostoerorkorretan,



OKIL BELTZA (*Dryocopus martius*)

Kasko gorria izan ezik lumadi erabat beltza duen okila. Belabeltz baten tamaina du, lepo luzea eta ardatz itxurako silueta.

Ondo garaturiko basoetan bizi da, bereziki pagadietan. espezie geldikorra da, baina noizik behinka lekualdatze laburrak egiten ditu. Birritan detektatu da Altubeko basoan.

NEURRIAK: luzera: 45 cm. Pisua: 300-350 g.



batez ere hariztietan, erkameztietan eta ibai-basoetan, eta landazabaleko landaredi autoktonodun unadetan ere, 200 bikote bizi dira gutxienez. Gorbeiaiko Parkearen lurraldeko pagadietan, hariztietan eta ameztietan aurkitu da, beti ere dentsitate txikietan.



ENARA ARRUNTA

(*Hirundo rustica*)

Europako hegaztiarik herrikoienetako bat da. Erraz bereizten da bitan zatituriko buztan luzeagatik. Gainaldeak urdin ilunak dira eta azpialdeak zurixkak. Bestetik, bekokia eta eztarria gorrixkak ditu, eta azken honen azpian, kolore urdin iluneko banda estu bat du. Espezie udatiarra da eta Euskal Herrian martxoaren bukaeran eta batez ere apirilean azaltzen dira lehen aleak. Gogokoena duen habitata dira nekazaritza-eremuetako giza eraikin txikiak (baserriak, bihitegiak...) Euskal Herrian



isolaturiko baserrietan eta herrigune txikietan bizi da nagusiki, eta herrigune txikietan, bat atlantiar landazabaletan, bai lurraldearen hegoaldeko mediterranearen laborantzetan ere. Gorbeiaiko Parkeko populazioak Altubekko lurraldearen landazabal-eremuetan dauden baserrietan ugaltzen diren 10-20 bikoteak baino ez dituela dirudi.

Ugaldutakoan, zenbait hezeguneren inguruan elkartzen dira Afrikako eta gutxiagotan Mediterraneoaren inguruko lurraldeetarako bidaiari ekiteko prestatzen diren hegazti ugari. Espezie honen udazkeneko pasea irailean eta urriaren lehen egunetan gertatzen da.

NEURRIAK: luzera: 18-20 cm. Pisua: 25-30 g.

PIRRIPIOA

(*Lullula arborea*)

Hegatxabal Arruntaren antzekoa, baina txikiagoa da, eta buztana laburragoa du. Lumadia arrea duelarik, ez da erraza ikusten, batez ere lurrian alde batetik bestera dabilenean haren elikagai nagusia diren intsektu eta hazien bila. Errazago ikus daiteke zuhaixka baten gainean pausatzen denean, edo airean dagoelarik bere kantua egiten duenean. Edonola, honen kantua ez da hegatxabal Arruntarena bezain ozen eta luzea. Bestetik, hegatxabal txiki honek, tarteka zuhaixka garaiak edo zuhaitzak dituzten eremu irekietan aurkitzen da, eta saihestu egiten



ditu bai benetako basoak, bai inolako zuhaitzik ez duten inguruneak.

Espezie hau ohikoa izaten da mediterranearen inguruneetan, eta urriago egiten da penintsulako atlantiar lurraldean sartzen garen heinean. Hortaz, ohikoa izaten da Arabako zati handian, baina urriago egiten da uren banalerroko mendietarantz hurbiltzen garenean. Oro har, urria da Gorbeian eta ia soilik aurki daiteke hego-isurialdeko ameztien argiune eta ertzetan, oso kopuru txikian, gainera (0,37 hegazti/10 hektarea).

Gorbeian eta penintsulako iparraldean ugaltzen diren pirripio gehienek, ugaltze-eremuak uzten dituzte neguan, baina ez dakigu zein diren haien negu-lurraldeak.

NEURRIAK: luzera: 15 cm. Pisua: 24-36 g.

HAITZ-ENARA

(*Ptyonoprogne rupestris*)

Enara honek gainaldea arre iluna du eta azpialde ere argia. Eztarria pikarta du eta buztanaren goi-ertzean orban zuri txikien zerrenda bat.

Kolonietan ugaltzen da eta buztinezko habiak eraiki eta itsas edo mendi-labar baten arroka-irtenune baten azpiko horma bertikalean itsasten ditu. Halaber eraiki ditzake habiak utzitako harrobietan edo eraikinetan, hegalkinak baldin badituzte. Gorbeia dago-kionez, Aldamiren, Itxinako kanpo-hormetan, Muruako harrobi zaharretan, Gujuliko ur-jauzian, Bikotzeko mendatetik gertu eta Baias ibaiko ezponda txikian ugaltzen da.



Zenbait bikotek (5-10) Altubeko basoa zeharkatzen duen A-68 autobideko zubibidean ere kokatzen dituzte habiak. Ez dakigu zenbatekoa den Parkeko populazioa, baina berrogeita hamar bikote ugaltzaile ugaltzaile ingurukoa dela estimatu da. Mediterranearen espeziea da eta Euskal Herrian du bere banaketaren ipar-muga. Hori dela eta, kolonien kokapena aldakorra den arren, hegoaldeko orientazioak nahiago bide ditu.

Haitz-enara da berez migratzailea ez den enara bakarra. Edonola, oso iparraldera edo oso goian kokaturiko lurraldeetako koloniak osatzen dituzten hegaztiak, kostalderantz edo babesturiko haran jakin batzuetara jotzen dute neguan, klima baldintza hobeen bila. Iberiar Penintsulako hegazti batzuek Gibraltarreko Itsasartearen zeharka dezakete, negua Afrikaren iparraldean emateko.

NEURRIAK: luzera: 14 cm. Pisua: 20-22 g.

ENARA AZPIZURIA

(*Delichon urbica*)

Buztan laburra eta apar bat urkilaxkara duen enara. Kapirotea, gibelaldea, buztana eta hegoen gainaldea beltzak ditu, eta ipurtxuntxurra eta azpialdeak aldiz, zuriak.

Espezie udatiarra da eta apirilaren lehen hamabostaldian heltzen da Euskal Herriko ugaltze-lurraldeetara. Habiak kolonia txikiak eratuz egiten ditu batez ere giza eraikinetan kokaturik; edonola, oraindik ere aurki daitezke zenbait habi haren jatorrizko habitatean, alegia, zenbait mendialde eta itsas labarretan. Parkean hiru koloniaren berri baino ez dugu izan, eta horiek guztiak daude hego-mendebaldeko eskualdean. Ugarienak 35 bikote inguru ditu eta Altubeko basoa zeharkatzen duen A-68 autobideko zubibidean kokaturik dago. Gainerako biak, Gujuliko ur-jauziaren ondoan daude, eta 15-20 eta 8-10 bikotez osaturik daude gutxi gorabehera. Ugaltze-sasoia bukatutakoan, enara azpizuri gehienek Afrikako negu-lurraldeetara jotzen dute.



Bertako hegazti askok gure latitudeak irailean uzten badituzte ere, udazkeneko pasea azaroko lehen egunetara arte luza daiteke, eta Frantzia, Alemania eta Belgikatik datozen aleez osaturik bide dago.

NEURRIAK: luzera: 12,5 cm. Pisua: 18 g.

MENDI-TXIRTA (*Anthus spinoletta*)

Udan, mendi-txirtek gibelaldea eta kapirotea arre grisaxka kolorekoa dituzte, eta azpialdean aldiz zuriak, bularra arrosaxka izanik; neguan, gainaldeak ilunagoak izaten dituzte eta bularra zirrintaduna. Berezi migrazio-paseetan Negu-txirta ugariarekin lagunduta azaltzen da. Edonola, ez dira zailak bereizten; Mendi-txirta, Negu-Txirta baino handiagoa da, eta hanka beltzak ditu eta bekain zuria markatuagoa du. Araldikantua igortzen du airean gora doanean eta lurrera itzuli arte. Euskal Autonomi Erkidegoan, goi-larredi eta txilardietan aurki daiteke: atlantiar lurraldean, 700 m-ko altueratik gora eta Arabako hegoaldeko mendietan aldiz, 1.200 metroko altueratik. Gorbeian, 800 m-tik gora ugaltzen da, eta bertako populazioa 50-70 bikotekoa dela estimatu da. Kumaldian 7-15,7 hegazti/10 hektareako dentsitateak neurtu dira txilardietan eta 3,2-4,1 hegazti/10 hektareakoak larredietan. Neguan, ugaritasun bera ikusi da goialdeetan, eta beraz, espeziea nagusiki geldikorra dela pentsa daiteke. Edonola, elurte handiak gertatzen direnean, altuera-mugimendu laburrak egiten dituzte, elur-



turiko eremuak ia erabat utziz. Izan ere, 26 hegazti/hektareako dentsitateak kalkulatu ziren Arrabako belardietan apirilen, Parkea 1.100 metroko altueratik gora elurrez bete zuen ekaitz baten ondoren. Beste zenbaitetan, elurteak eremu baxuagoak hartzen dituenen, mendi-txirtak beherago jaisten direlarik, ohikoak izaten dira Saldropon eta beste larredi baxu batzuetan. Elurra desagertutakoan, goiko txilardi eta larredietara itzultzen dira.

NEURRIAK: luzera: 17 cm. Pisua: 21-36 g.

UDA-TXIRTA (*Anthus trivialis*)

Gainerako txirtetatik lumadiagatik bakarrik bereiztea zail samarra den arren, Gorbeian errazagoa da, udaberrian eta udan Mendi-txirtarekin batera bakarrik ikus baitaiteke eta honetatik erraz bereizten baita hanken kolore arrosaxkagatik eta zirrinta beltzdun bular horixkagatik. Urte-saso honetan Landa-txirtarekin (*Anthus campestris*) ere nahas liteke, baina azken hau oso gutxitan ikusi da: habiagile gisa behin bakarrik aipatu dira, Parkearen mugetatik at dauden Urigoitiko uraleku batzuetan. Uda-txirta, espezie migratzailea delarik, apirilaren hasieran heltzen da Parkera eta orduan,



migrazio-bidaian doazen azken negu-txirtekin (*Anthus pratensis*) nahas daiteke; edonola, azken hauek taldeetan mugitzen dira, eta uda-txirtak aldiz, ordurako bana-ka sakabanaturik egoten dira bere lurraldeetan emeen agerpena aldarrikatzen; izan ere, emeak beranduago heltzen dira ugaltze-eremutara. Gehienetan kantu bat egiten du hegoak jausgailu gisa zabalik dituelarik airean behera amiltzen den bitartean. Espezie hau arrunt samarra da Gorbeian, eta eremu ireki gehienetan aurki daiteke, isolaturiko zuhaixka edota zuhaitzak dituztenetan behintzat. Baso trinkoak saihesten ditu, baina maiz agertzen da baso-argiuneetan, berezi ameztietan. Uda txirtek irailaren hasieran uzten dute bakea, bai urrian ere ikus daitezke ale migratzaile bakan batzuk.

NEURRIAK: luzera: 15 cm. Pisua: 20-25 g.



NEGU-TXIRTA (*Anthus pratensis*)

Negu-txirtak Ipar eta Erdi Europako hainbat herrialdeetatik etortzen dira, eta Europako atlantiar kostaldeetan eta Mediterraneoaren inguruan ematen dute negua. Udazkeneko migrazio-jarioaren zati handia Iberiar Penintsulan sartzen da Pirinioen mendebaldeko muturrean zehar, eta beraz, Euskal Herria zeharkatzen dute migratzaile ugari irailaren bukaeratik, azaroaren hasierako egunetara arte. Txirta hauetako askok Euskal Herrian

cm. Pisua: 16-25 g.



ematen dute negua, eskualderik epelenetan elkarturik; izan ere, honelakoetan ornogabe-ek aktibo dirautelarik, hegazti txiki hauen dietaren osagaiak izan daitezke. Gorbeian oso espezie ohikoa eta ugaria da landaredirik gabeko eremuetan, bai udazkeneko pasean, bai udaberrikoan ere. Edonola, neguan haran-hondoetako landazabaletan bakarrik ikus daiteke, gehienetan oso kopuru txikian, gainera.

NEURRIAK: luzera: 14

BUZTANIKARA HORIA (*Motacilla cinerea*)

Gainerako buztanikarek baino buztan luzeagoa du, eta gibelaldearen eta buruaren kolore gris urdinxkagatik eta hori koloreko azpialdeagatik bereizten da. Arraren eztarria beltza izaten da udan, baina ondoren, emeen eztarriak izan ohi duen kolore zurixka hartzen du. Erraz nahas liteke kolore horiko beste buztanikara batekin, alegia, Larre-buztanikarekin (*Motacilla flava*), baina hau ez da bizi ur-ibilguetan eta gainera Parkean migrazio-paseetan bakarrik ikus daiteke. Buztanikara Horia ohikoa izaten da erreka-ibaletan baina neguan itsasadarretan eta kostalde arroksuetan ere ikus daiteke. Gorbeia erreka gehienetan egiten ditu habiak, eta askotan ibai-buruetaraino hedatzen da (Ubegi. Aldabide,...) Kare-harrizko harkaitzen azpian sortzen diren hezeguneen inguruetan ere ugal daiteke. Uretatik hurbil dauden harkaitzetako zulo eta erlaitzetan eraikitzen du habia, eta emeak 4 eta 6 arrautza bitartean erruten ditu.



Kumeak elikatzeko, ur-larbak, hegodun intsektuak (dipteroak eta kakalardoak), barraskilo txikiak eta ur-arkakusoak harrapatzen dituzte.

NEURRIAK: luzera: 18 cm. Pisua: 16-23 g.

BUZTANIKARA ZURIA (*Motacilla alba*)

Oso espezie ezaguna eta herrikoia da lumadi zuri-beltz bereizgarriagatik, etengabe mugitzen duen buztan luzeagatik eta hirietako lorategi eta parkeetan ohikoa delako. Euskal Herrian, habiak egiten ditu kostaldeko eta haran-hondoetako ingurune ireki askotan, berezi herri eta hirietatik eta ur-ibilguetatik edo hezegunetatik hurbil. Ez da horren ohikoa Gorbeia Parkea bezalako mendialdeetan, giza eraikinik ezaren eta lurraldearen izaera basotsuaren ondorioz. Maiz ikus daiteke landazabaleko eremuetan. Zenbait bikote 1.000 metroko altueratik beherako mendi-aterpeen eta artzain-etxolen inguruetan ere ugaltzen dira. Neguan, beheko eremuetan dauden eraikinen inguruan ikus daitezkeen ale gutxi batzuk baino ez daude. Migrazioan, eta berezi eztei-ondoko pasean (iraila/urria)



ugariak izan daitezke Pareko eremu hauetan.

NEURRIAK: luzera: 18 cm. Pisua: 20-27 g.

UR ZOZOA (*Cinclus cinclus*)

Ixura marduleko hegazti urtarra. Kolore arre ilunekoa da, zuriak diren eztarria eta bularra izan ezik.

Ur garbiko ibai-erreketa bizi da, batez ere jauzi eta laster txiki ugari dituztenetan. Erraztasun handia du igeri egiteko, murgiltzeko, eta urpean sartu eta ibai-ohea miazteko ur-intsektuen larben bila, batez ere efemeride eta trikopteroenak. Euskal Herriko ibai-erreak gehienetan zehar banaturik dago, itsas mailatik, kotarik altuenetaraino, baina ez da azaltzen kutsaturiko ibilguetan eta urria izaten da urak geldotu egiten diren ibai-tarte zabalenetan. 1.1 bikote/kilometroko dentsitateak detektatu dira. Arnauri ibaian (Orozko) eta Arratia ibaiaren goiko tarteetan. Gorbeiaiko ibai-erreak gehienetan ikus daiteke, Parkearen mugetatik, Baias ibaiaren bururaino, hots, 900m-ko altueraraino. Detektaturiko lurraldeak honela banatuta daude Parkeko ibaietan zehar: Altube, Baias, Zubialde, Undebe eta Arratia. Gehienetan habia tamaina handiko goroldio-esfera bat izaten da, eta ur-jauzien eta putzuen inguruko erlaitz batean edo zulo baten barruan kokatu ohi dute. Askotan, zubiak, errota edo presak bezalako giza eraikinetan ere ipintzen dituzte. Presetan, ur-gortinaren atzean eraiki ohi dute sarritan habia; izan ere, horixe da tokirik iriste-zinena arrakastuen gertatzen zaizkion harrapatzaileentzat, hots, musteli-



do, arratoi eta ur-sugeentzat. Euskal ibaietan otsailaren bukaeran gertatzen dira lehen erruteak eta zuri koloreko 3 eta 5 arrautza bitartekoak izan ohi dira. Jaioi ondoren, kumeak habian elikatzen dituzte 20-24 egunetan, baina lehenago ere utz dezakete habia arazoren bat sortuz gero; izan ere, 15 egun dituztenean urpean igeri egiteko gauza izaten dira dagoeneko. Hiru aste iragandakoan, gazteak bere aldetik jotzen dira eta gurasoek beste errute bat egin dezakete.

Ur-zozoa nagusiki geldikorra bada ere, ale gazteek lekualdaketa laburrak egiten dituzte eta beste arro hidrografiko batzuetaraino ere hel daitezke.

NEURRIAK: luzera: 18 cm. Pisua: 50-60 g.



TXANTXANGORRIA (*Erithacus rubecula*)

Oso hegazti ezaguna da, aurpegiko eta bularreko kolore laranja gorrixka deigarriagatik erraz bereizten dena. Gazteek ez dute bular gorririk eta arre pikartak dira, helduek azaltzen duten jantzia udaren amaieran lortzen duten arte.

Euskal Autonomi Erkidegoan ohiko espezie habiagilea delarik, bertan bizi den populazioa 107.000-215 bikote ingurukoa dela estimatu da.

Sastrakadi eta oihanpe trinkoa duten basoetan aurkitzen da batez ere, bereziki, hariztietan, erkameztietan, amezti helduetan eta Intsinis Pinuko adineko landaketetan. Oro



har, eremu irekiak saihesten ditu, baina ugari samarra izan daiteke landazabaletan, heskai eta zuhaitzien babesean. Habiak lurrean egiten ditu, askotan ezponda txiki batean eta landare-diaren artean ondo ezkutaturik. Udaberrian eta udan hegazti intsektujale hutsa da, baina udazkenean eta neguan, fruitu-kontsumitzaile aparta bihurtzen da: masusta, huntza eta intsa bezalako fruituez elikatzen da.

Penintsularen iparraldeko beste goi-baso batzuetan gertatzen den bezala, txantxangorri gehienek Gorbeiaiko basoetatik alde egiten dute udazkenean, eta ez dira berriro azal-tzen martxora arte. Negu-lurraldeen kokapena zein den ez badakigu, ere, badirudi txantxangorri hauetako gehienak migratzaileak direla eta Ebroko Haraneko edo Mediterraneoaren inguruko lurralde epelagoetara jotzen dutela.

NEURRIAK: luzera: 14 cm. Pisua: 16-22 g.

TXEPETXA (*Troglodytes troglodytes*)

Kolore arreko txori ñimiñoa, kantu ozena egiten duen bitartean buztan laburra tente mantentzen duena. Ez da kobazuloekin harremanetan dagoen hegaztia, haren izen zientifikoak (Troglodytes = koba-zalea) pentsarazten digun bezala; izan ere, habia itxia eraikitzen du kumeak aurrera ateratzeko eta beste generokide batzuekin batera neguko gau hotzetan gordetzeko; horrexegatik esleitu zitzaion aipaturiko izen zientifikoa.

Euskal Autonomi Erkidegoko hegazti ugarirenetako bat delarik, 90.000-140.000 bikote ugaltzaileko populazioa estimatu da. Sastrakadien edo landaredi-nahaspilaren nolabaiteko estaldura duen edozein motatako lurraldeetan bizi da. Hauxe da zalantzarik gabe Parkean zehar hedatuen dagoen hegaztia, bertako habitat gehienetan ugaltzen baita: bakarrik saihesten ditu landaredirik gabeko harkaitzak eta larredi bilduz-biluziak.



Espezie geldikortzat daukagun arren, goi-baso eta sastrakadietan bizi diren txepetx batzuek ugaltze-eremuak uzten dituzte neguan, eta haran-hondoetara eta inguruko eremu epelagoetara joaten dira.

NEURRIAK: luzera: 9,5 cm. Pisua: 10 g.

TUNTUN ARRUNTA (*Prunella modularis*)

Espezie honen izen generikoak erreferentzia egiten dio haren luma-diak duen kolorazio arre-grisakari. Askorik nabarmentzen ez den espezie urguria da, eta batez ere heskai eta sastrakadietan ezartzen da, bai landaza-



baletan nahiz eremu irekietan, bai basoetan.

Parkeko habitat gehienetan aurki daiteke, haran-hondoetako pinu-landaketetatik, gorako kokaturiko txilardietaraino; baina urria edo oso arraroa izaten da zenbait basotan. Neguan eremurik altuenak utzi, eta babesturiko eskualdeetan gordetzen da.

NEURRIAK: luzera: 14,5 cm. Pisua: 20-23 g.

MENDI-TUNTUNA (*Prunella collaris*)

Tuntun Arruntaren antzekoa baina tamaina handiagoa eta kolore gehiagokoa. Nabarmenak dira saihesten gorritzak eta ezdarri zuria, orban beltz txikiak dituenak. Goi-mendietako hegaztia da eta Euskal Autonomi Erkidegoan 950 m-ko altueratik gorako mendi-mazela



arrokatsuetan baino ez da aurkitzen. Parkean 10-15 bikote ugaltzen direla estimatu da: Aldamin, Lekanda eta Igalirrintzako tontorretan sakabanaturik daude, 1.300 m-ko altueran gutxi gorabehera. Neguan altuera-lekualdaketa egiten dituzte, eta Parkeko eremu baxuenetan kokaturiko paisaia arrokatsuetan ere ikus daitezke.

NEURRIAK: luzera: 18 cm. Pisua: 23-35 g.

BUZTANGORRI ILUNA

(*Erithacus rubecula*)

Espezie honen lumadiaren bi ezaugarri garrantzitsuenak dira buztan laranja gorrixka, banaturik dagoen lurralde gehienetako hizkuntzetan eman zaion izenean ageri dena eta gorputz gehiena estaltzen duten lumen kolore iluna. Arrak erraz bereizten dira kolore ilunagoa, ia beltza, eta hego-orban zuri nabariak izateagatik. Gehienetan zuhaitzik gabeko eremu arrokatsetan bizi da, baina giza eraikinetan ere aurki daiteke, eta askotan herri eta hirien gunean bertan egi-



ten ditu habitat. Espezie hau ugaria da Gorbeian, malda handiko labarretan nahiz larredietan tartekaturiko edozein arroka-azaleramendutan. Zenbait mendi-labarretan 2,3 hegazti/ 10 hektareako dentsitateak ere lor ditzake. Kantauriar Mendilerroko beste goi-lurralde batzuetan gertatzen den bezala, ilbeterik hotzenetan (abendurik otsailera) buztangorri hauek goi-lurraldeak utzi eta neguko tenperatura leunagoak eta elikagai eskuragarri gehiago dituzten eremu edo lurraldeetara jotzen dute.

NEURRIAK: luzera: 14 cm. Pisua: 14-19,5 g.



BUZTANGORRI ARGIA

(*Phoenicurus phoenicurus*)

Espezie honetako arrak Gorbeian aurkitzen diren hegaztiarik deigarrienetakoak dira. Aurpegia, beltza izaten du, bekokia zuria, kapirotea eta gainaldeak grisak, eta azpialdeak eta buztana gorriak. Emeak Buztangorri Ilunaren antzeko samarrak dira, baina askoz ere kolore argiagoa izaten dute.

Baso-hegaztia da hertsiki eta zulo ugari dituzten baso helduetan egiten ditu habiak. Euskal Autonomi Erkidegoan oso urria da eta dauden ale bakanak sakanaturik daude artadi zaharretan eta baso hostoeror-



korretan zehar.

Espezie hau arriskuan dagoelarik, lurralde honetan duen populazioa 150-200 bikotetik beherakoa bide da. Arriskuan duden Espezieen Euskadiko Zerrenda espezie Kalteberatzat hartu du, eta zuhaitz helduen mozketan bide da gure lurraldean buztangorri hauek pairatzen duten mehatxu nagusia.

Gorbeian ugaltze-eremu batzuk aurkitu dira harizti eta pagadietan, baina populazio hau dozena erdi bikote baino gutxiagokoa bide da. Hegazti hauek apirilaren erditik aurrera ikus daitezke Parkean, orduan itzultzen baitira Afrikako negu-lurraldeetatik. Abuztuaren bukaeran desagertzen dira, hegazti gehienek migrazio-mugimenduei egiten dietenean.

NEURRIAK: luzera: 11,5 cm. Pisua: 12-19,5 g.



PITXARTXAR BURUBELTZA

(*Saxicola torquata*)

Hegazti txiki hau erraza da ikusten, eremu irekietako zuhaixka txikien adaburuetan fidatuki pausatzeko ohitura baitu. Arrak bit-tra-bit erako hots bereizgarria ateratzen du bere pausatatik eta oso ikusgarria izaten da: buru eta ezarri beltzak ditu eta osatu gabeko iduneko zuri bat. Emea antzeko samarra da, baina askoz ere kolore motelagoak ditu. Ez dute begi-zirrinta zuririk, eta hori dela kausa, erraz bereizten dira Pitxartxar Nabarretik (*Saxicola rubetra*). Azken espezie hau migrazio-paretan bakarrik ikus daiteke Gorbeian, bereziki udazkenekoan (abuztua/urria).

Pitxartxar Burubeltza ondo banaturik dago Euskal Autonomi Erkidegoko lurralde osoan, eta bertan 28.000 eta 60.000 bikote bitartean ugaltze bide dira. Gorbeian, 1.300 metroko altuerarik beherako mota guztietako eremu irekietan aurki daiteke, eremu arrokatsetan izan ezik. Azaroaren bukaeratik, martxoaren hasiera arte, pitxartxar gutxi ikusten dira Parkeko larredi eta txilardietan, eta horrek



pentzarazten digu goi-populazio hauek migratzaileak direla, edo behintzat lurralde baxuago eta epelagoetaranzko lekualdaketak egiten dituztela.

NEURRIAK: luzera: 12,5 cm. Pisua: 14-17 g.

BUZTANGORRI ARRUNTA

(*Oenanthe oenanthe*)

Ez da erraza beste espezie batekin nahastea, arrek irudi-beltz nabaria baitute buztanean eta gainera, moztorro beltza. Arrak gainaldeak grisak izaten dira eta emeenak aldiz, arreak; azpialdeak oso aldakorak dira ordea, zuri garbitik laranja argiraino baitoaz.

Espezie hau ohikoa izaten da eremu irekietan, baina oso banaketa aldakorra du euskal geografian zehar. Ugaria izaten da otalurretan eta mediterranean isurialdeko zereal-soroen eta mahastien artean tartekaturik dauden landu gabeko lurretan; atlantiar eskualdean 700 metroko altueratik gora bakarrik ugaltzen da, eta beraz, nahiko hegazti urria da. Gorbeian, arroka-azaleramenduak dituzten larredi eta txilardietan aurki daiteke. Parkean ugaltzen den populazioa 40-50 bikote ingurukoa dela estimatu da, eta migratzaileak direlarik, martxotik irailaren buka-



era arte bakarrik ikus daitezke. Erraz beha dakieke Arimekortako larredietan. Arrabako belardietako arroka-azaleramenduetan eta Austiarmineko sarioaren inguruan.

NEURRIAK: luzera: 14,5 cm. Pisua: 17-30 g.

HARKAITZ-ZOZO URDINA

(*Monticola solitarius*)

Arra urdina izaten da, baina urrunetik edo argi gutxi dagoenean, beltza ematen du batzuetan; emea aldiz, arre grisaxka izaten da, gibelaldea ilunagoa izaten du. Hegaldatzen denean arabazoen antzeko zilueta izaten du, hego triangeluarrak eta buztana laburrak baititu. Espezie hau ohikoa izaten da ingurune arrokatsetan, eta Euskal Autonomi Erkidegoan itsas labarretan eta Arabako hegoaldeko mendietan banaturik dago nagusiki. Gutxitan aurkitzen da uren banalerroko mendietan, baina berriki zenbait bikote ugaltzaile azaldu dira bertan. Gorbeian dagokionez, Itxinako horma-bularretan 1-2 bikoteran agerpena aipatu da.

NEURRIAK: luzera: 20 cm. Pisua: 80-110 g.



HARKAITZ-ZOZO GORRIA

(*Monticola saxatilis*)

Arak kolore asko-dun lumadi ikusgarria du: ipurtxuntxur zuria, ezta, buru eta bizkar urdin arbelkara, eta laranja koloreko azpialdeak. Hala ere, ez da erraza ikusten, jokera iheskor eta bakartia baitu. Sarritan errazagoa izaten da hegana ari den bitartean edo harkaitz baten puntatik botatzen duen txirula-noten antzeko txorrotzioaz jabetzea. Sahara zeharkatzen duen migratzailea da eta Penintsularen iparraldeko mendietara, apirilaren erdian



heltzen da. Habia, arroka arteko zulo batean egiten du, gehienetan zuhaixka gutxiko mendi-mazela larredidun arroksuetan. Euskal Autonomi Erkidegoan 600 m-tik gorako altueretan dauden harkaitzetan egiten ditu habiak, baina uren banalerroko mendietako (Salvada, Gorbeia, Aralar, etc...) ugaltze-lurraldeak 900 metroko altueratik gora daude. Gorbeia Parkeari dagokionez, habiak egiten ditu Aldamin, Dulau eta Arroriano haitzetan eta Itxinako horma-bularetan, estimaturiko populazioa dozena bat bikote ugaltzaile ingurukoa izanik.

NEURRIAK: luzera: 19 cm. Pisua: 42-65 g.



GARRAZTARROA

(*Turdus viscivorus*)

Bere generoko hegaztirik handiena. Erraz bereizten da Birigarro Arruntetik, gainaldean kolore grisaxkagatik eta hegoen barnealdeko zuriagatik.

Ohiko baso-espeziea da, eta gogoko ditu argiuneak eta baso-ertzak; ugariagoa izaten da goi-eremuetan. Gorbeia Parkean nahiko arrunta izaten da, baina ugaltze-sasoian ez du inoiz lortzen oso dentsitate, handirik. Hegazti goiztiarrenetakoa da araldian sartzeko. Abenduan entzun daiteke jadanik arak zuhaitz baten adar irtenetik ateratzen



duen txirula antzeko kantua Parkeko pagadi eta hariztietan. Zenbait errute otsailaren bukaeran gertatzen dira, eta beraz, apirilaren hasierarako zenbait kumek utzia bide dute habia. Sasoi. honetan batez ere intsektuez elikatzen bada ere, gainerakoetan ia fruituez bakarrik elikatzen da: mihura, elorria, gorostia. Bertako garraztarroak geldikorrak direla dirudi, baina goi-eremuetan ugaltzen direnek, mugimendu laburrak egiten dituzte, eta neguan haran-hondoetako eremu irekietan jaisten dira. Bestetik, hegazti-talde handiak ikus daitezke bai udaberriko migrazioan, (otsaila/martxo), bai udazkenekoan (iraila/urria), ale hauek Iberiar Penintsulatik kanpokoak bide dira, eta ziurrenik Eskandinaviatik eta Erdi Europatik etortzen dira.

NEURRIAK: luzera: 27 cm. Pisua: 110-140 g.



BIRIGARRO ARRUNTA

(*Turdus philomelos*)

Iberiar Penintsulako zuhaizdun eremu gehienetan bizi den birigarroa. Baso txiki batean halakorik badago, barraskilo-maskorren hondarrez (batez ere, *Cepaea nemoralis* espeziekoak) inguraturiko harriengatik detektatzen da; izan ere, birigarroek ingude modura erabiltzen dituzte harri hauek, barraskiloen babesa apurtu eta barruko elikagairaino heldu ahal izateko. Barraskiloak ez ezik, zizareak, mota guztietako intsektuak, baiak eta fruituak ere jaten ditu. Otsailean, araldiari ekiten diote, eten laburrez banaturiko ahapaldi labur eta aldakorrek errepikatzean datzan kantu ozena eginez. Gorbeian, baso guztietan aurkitzen da, bai eta konifero-landaketetan eta zuhaizdun landazabaletan ere. Baso hostoerorkorretan eta landazabaletan ugariagoa bada ere, inoiz ez du lortzen dentsitate handirik.

Neguan birigarro arrunt gutxi geratzen dira Parkeko basoetan, eta horrek, bertako populazioak migrazio- edo transhumantzia-mugimenduak egiten dituela pentsarazten digu, lekualdaketa horien luzera ezezaguna bada ere. Irailaren erditik eta batez ere urrian azaroan, europar populazio migratzaileen udazkeneko pasea gertatzen da; horietako gehienak, Eskandinavia, Alemania, Holanda eta Britainiar Uharteetatik etortzen dira. Genero bereko beste espezie batzuekin lagunduta etortzen dira, bereziki, Birigarro Txikiarekin eta Durdularekin, eta bai aipaturiko Garraztarroaren iparreko populazioekin ere. Birigarro



Txikia (*Turdus iliacus*) genero honetako europar espezierik txikiena da eta erraz bereizten da besteetatik arrearen gainean nabaria den krema koloreko bekainagatik. Hegana ari denean, tsiip moduko hots leun eta zorrotza ateratzen du,

Birigarro Arruntak egiten duen zutik laburretik erraz bereizten dena. Durdula (*Turdus pilaris*) ere, erraza da ezagutzen, zeren buztan beltza eta burua eta ipurtxuntxurra kolore arbelkara dituen bakarra baita; gainera, maiz egiten du Chac-chac moduko hots berezia.

Turdus generoko espezie hauek guztiak dira ehiza-espezieak, eta zilegi da Gorbeia Parkearen mugen barruan hauek ehizatzea; edonola, ehiza araudi bereziko pase-lerro jakin batzuetara mugaturik dago.

NEURRIAK: luzera: 2 cm. Pisua: 70-90 g.



ZOZO PAPARZURIA

(*Turdus torquatus*)

Antza handi du Zozo Arruntarekiko, baina Abularra zeharkatzen dion marra zuri bereizgarria azaltzen du, emearen kasuan kolore motelagoa duena. Gure latitudeetan urritik maiatzaren hasiera arte ikus daiteke, goi-larriedien ondoan kokaturiko malda handiko harkaitzetan. Badirudi Kantauriar Mendilerroko edo Pirinioetako ugaltze-lurraldeetatik datozen hegazti transhumanteak direla, edota Britainiar Uharteetatik datozen Iberiar Penintsulatik kanpoko aleak. Euskal Autonomi Erkidegoan egin den espezie honen kumaldiari buruzko aipu bakarra izan da Gorbeian 1982an ikusi ziren espezie honetako gazte hedadurena. Hortaz, baliteke noizik behinka Paparzurria Parkean ugaltzea, baina azken urteetan ez da horrelakorik detektatu.



NEURRIAK: luzera: 24 cm. Pisua: 95-130 g.

ZOZO ARRUNTA (*Turdus merula*)

Mota guztietako zuhaitz eta sastrakadun paisaietan bai eta hirietako lorategi eta parkeetan ere aurkitzen den espeziea. Ar helduak beltzak izaten dira, moko eta begi-eraztun horiak izan ezik; emeak eta gazteak arreak izaten dira, gazteak apur bat argiagoak izanik. Lurrean hartzen dituen harrapakinez elikatzen da batez ere (intsektuak, moluskuak eta zizareak), baina baia eta fruitu ugari ere jaten ditu, bai udazkenean (elorri zuria, gorostia, hagina,...) bai neguan (huntza, arbustu arrunta, arkakaratsa,...). Gorbeian ohikoa izaten da mota guztietako baso-eremuetan, baina dentsitate handienak landazabaletan, eta basoetako argiune eta ertzetan detektatzen dira. Habia zuhaitz eta zuhaixketan egiten ditu, buztin-katilu bat eraikiz eta barrua hainbat motatako materialez estaliz (belarrak, goroldioa, ordela,...). Habiagile goiztiarra da, eta martxo-rako lehen arrautzak berotzen ari da, eta 3 eta 9 arrautza bitarteko hiru errute ere egin ditzake.



Bertako zozo gehienak, geldikorrak izaten dira. Edonola, irailetik aurrera, hegazti berrien sarrera detektatzen da eta eraztunketaren bidez, Europako hainbat herrialdeetatik datozela dakigu, bereziki Herbeheretatik, Alemaniatik eta Erdi Europatik.

NEURRIAK: luzera: 25 cm. Pisua: 80-110 g.

ERREKATXINDORRA (*Cettia cetti*)

Gainalde arrea eta azpialde zurixka duen txori txikia. Arrak, emeak baino nabariki txikiagoak izaten dira, eta hauek baino %30eko pisu handiagoa izaten dute. Espezie hau zaila da ikusten, lumadi apalarengatik eta ohitura urguriengatik. Gehienetan landaredian ezkutaturik egoten da, eta bere burua salatzen du nota leherkari eta ozen batzuk ateratzen dituenean. Hezeguneen eta erribera-landaredi ugaridun ur-ibilguen ondoko landaredi zuhaizkaradun eremuetan bizi da. Espezie geldikorra da, eta tenperatura baxuekiko oso sentikorra denez, haren populazioek murrizte garrantzitsuak pairatzen dituzte negu latzak gertatzen direnean. Euskal Autonomi dagokionez, batez ere kostaldean eta haran-hondoetan zehar banaturik dago. Urria da Gorbeian eta beste barne-mendialdeetan, neguko klima



askoz ere latzagoa baita.

NEURRIAK: luzera: 18 cm. Pisua: 33-45 g.

IHI-TXORIA (*Cisticola juncidis*)

Txori fimiñoa, gainaldea arre zirrintaduna eta azpialdea zuria duena; ipurtxuntxurra gorrixka izaten du, eta buztana labur eta biribiltua. Errazago bereizten da hegaldatzen denean, igotze eta amiltze txikiak egiten baititu chip moduko hots bereizgarria ateratzen duen bitartean. Aurreko espeziea bezala, Ihi-txoria oso sentikorra da tenperatura baxuekiko eta haren populazioek hilkortasun handia izaten dut oso negu latzak suertatzen direnean. Euskal Herrian landazabaletako belazeei eta zenbait hezeguneren landaredi zuhaizkarari loturiko espeziea da. Goi-eremuak saihesten ditu eta ugariagoa izaten da negu leunagoak dituen kostaldeko eskualdean. Ez du habiarik egiten Gorbeian, eta agerpenen aipu bakarrak, udazkenean



(iraila/urria) Saldropo inguruan detektaturiko hegazti dagozkie.

NEURRIAK: luzera: 10 cm. Pisua: 7-9 g.

TXINBO KASKABELTZA (*Sylvia atricapilla*)

Hegazti grisaxka, kapirote bereizgarria duena: arreak beltza izaten dute eta emeek eta gazteek aldiz, gaztaina-kolorekoa. Oso espezie arrunta da Euskal Herrian, eta mota guztietako zuhaizdun eremuetan bizi da, nolabaiteko garapena duen oihanpea dutenetan behintzat. Espezie ugaria da Gorbeia landazabaletan, pagadietan, hariztietan eta konifero-landaketa gehienetan, baina urria izaten da ordea, altzifre-landaketa askotan eta larratzerako erabiltzen diren alertzeoi batzuetan.

Parkean ugaltzen diren txinbo kaskabeltzak, migratzaileak dira eta udazkenaren hasieran alde egiten dute haien lurraldeetatik; hori dela eta, zaila izaten da urriaren bukaeran Gorbeia basoetan



espezie honetako alerik ikustea. Landazabaletan aldiz, bai eta azaroan ere ikus daitezke txinbo kaskabeltzak, migrazioan eten bat egin eta bidea segitu aurretik fruituez elikatzen direnak. Parkean beste hiru txinbo-espezie ugaltzen dira. Baso-txinboa (*Sylvia borin*) zein Sasi-txinboa (*Sylvia communis*), espezie migratzaileak dira, eta Gorbeian udako hilabeteetan bakarrik aurki daitezke. Baso-txinboa, landazabaletan eta baso-ertzetan detektatu da, eta Sasi-txinboa aldiz, sastrakadietan eta landazabaletan zehar banaturik dagoen espezie urria da. Halaber, oso urria da Gorbeian Etze-txinboa (*Sylvia undata*), zeren mendietan neguan gertatu ohi diren tenperatura baxuak gaizki pairatzen dituen espezie geldikorra baita. Hala ere, udan detektatu da Oketako eta Orozkoko sastrakadietan.

NEURRIAK: luzera: 13-15 cm. Pisua: 14-20 g.



SASI-TXORI ARRUNTA (*Hyppolais polyglotta*)

Txio Iberiarraren antzeko samarra, baina handiagoa eta moko mardulagokoa. Espezie-izenak (*polyglotta*) beste txori batzuen kantua imitatze duen gaitasunari egiten dio erreferentzia. Eremu erdi-ekietako sastrakadietan, eta basoetako argiune eta ertzetan bizi da, baina goi-lurraldeetan kokaturiko eremuak saihesten ditu. Euskal Autonomi Erkidegoan ohikoa izaten da kostaldeko padura eta landazabaletan, landaturiko pinudien ertzetan, ibai-basoetan eta zereal-laboreen eta mahastien artean tartekaturiko heskaletan. Espezie hau urria da Parkean, baina behe-altueretan kokaturiko landazabaletan eta zenbait baso eta landaketatan aurki daiteke inoiz. **NEURRIAK:** luzera: 13 cm. Pisua: 9-15 g.



TXIO IBERIARRA

(Phylloscopus brehmii)

Gainalde berdexka eta azpialde hori argia duen hegaztia, hanka beltzxxkak dituena. Zaila da beste txioetatik bereizten, bereziki Txio Arruntetik (*Phylloscopus collybita*); izan ere, bi unek elkarrekin aurki daitezke Parkean. Bereizteko modu bakarra, baina ez erabatekoa da kantauri adi egotea: Txio Arruntak chif-chaf moduko hots errepikakor eta monotonoa ateratzen du eta Txio Iberiarraren ahotsa aldiz, beheranzko sip-sip-sip gisakoa da. Txio iberiarra Euskal Herriko zuhaizdun eremu gehienetan aurki daiteke, bai eta landazabaletan eta ibai-basoetan ere. Edonola, Txio Arrunta Atlantiar isurialdeko baso eta landazabaletan bizi da nagusiki, batez ere kostaldeko harenetan. Mediterranear lurraldean, oso urria da Txio Arrunta eta haren banaketa zenbait baso hezetara eta zenbait ibai-basoetan mugaturik dago. Txio hauek gehienak migratzaileak dira ugaltze-lurraldetik irailaren inguruan alde egiten dute. Neguan, zenbait ale ikus daitezke, ziurrenik



Britaniar Uharteetatik, Frantziatik edo Herbehereetatik etorritako txio arruntak. Udaberriko pasea, otsailaren erditik apirilaren bukaera arte gertatzen da, eta hasieran, bakarrik txio arruntez osaturik egoten da. Martxoaren hasieratik aurrera entzun daitezke Txio iberiarraren lehen kantutak, eta hauxe da uda partean Parkean hedatuen dagoen espeziea. **NEURRIAK:** luzera: 11 cm. Pisua: 6-9 g.

TXIO LEPAZURIA

(Phylloscopus bonelli)

Zaila izaten da beste txio-espezie batzuetatik bereizten: gibelaldea eta burua apur bat grisaxkagoa, eta azpialdeak argiagoak. Are zailagoa da kantuen bidez bereizten, nota bakar bat errepikatzen baitu txio geldo eta laburra eginez.

Espezie hau ohikoa izaten da baso eta sastrakadi supra-mediterranearretan eta bereziki ugaria da ameztietan. Gorbeiaiko Parkeari dagokionez, ameztietan aurkitzen da batez ere (6,05 hegazti/10 hektareako dentsi-



tateak lor ditzake), baina zenbait bikote Haritz Kandudunezko basoetan ere ezartzen dira. Bestetik, Txio lepa-zuriak inoiz ikusi dira Garaigortako artadian, eta bai pagadi baten ertzetan ere.

Espezie migratzailea delarik, Penintsulako iparraldeko ugaltze-

lurraldeetara martxoaren bukaeran heltzen da, eta uztailearen bukaeran edo abuztuaren hasieran alde egiten du.

NEURRIAK: luzera: 18 cm. Pisua: 33-45 g.

EULI-TXORI GRISA

(Muscicapa striata)

Espezie honetako lehen aleak apirilaren erdian heltzen dira Gorbeiaiko baso eta landazabaleta-
ra, Afrika subsahariarreko negu-lurraldeetatik etorrira.

Euli-txori hau erraza da identifikatzen, batez ere ehizarako duen jokaeragatik: pausaleku egoki bate-tik, hegaldi labur bat egiten du in-tsektu hegodunak harrapatzeko eta ondoren, pausaleku berberera itzultzen da. Sexu bien Lumadia grisaxka izaten da gainaldean eta zurixka azpialdean, eta zirrinta mehe ilu-nak dituzte bekokian eta bularrean.



Banaketa irregularreko espezie urria da, eta oro har, altuera txiki-kiko lurraldeetan aurkitzen da, gehienetan 600 m-ko altueratik behera. Nagusiki konifero eta hostozabal-baso helduen argiune eta ertzetan bizi da, baina baita landazabaletan ere, eta orduan baserrien eta bestelako giza eraikinen inguruetan ikus daiteke. Gorbeiari dagokionez, landazabaletan, hariztietan eta

ondo garaturiko zenbait konifero-landaketatan ere detektatu da, baina oso dentsitate baxuak azaltzen ditu, eta ez da azaltzen Parkearen eskualde handi askotan.

NEURRIAK: luzera: 14 cm. Pisua: 15-16 g.

MENDI-ERREGETXO

(Regulus regulus)

Erregetxo Bekainzuriarekin (*Regulus ignicapillus*) batera, Europako hegaztirik txikiena da. Bekainzuritik bereizten da ez bekain zuritik eta ez begi-zirrinta beltzik ez duelako. Gainera, Erregetxo Bekainzuria zuhaizdun eremu guztietan oso ugaria den bitartean, Iberiar Penintsulan Mendi-erregetxo goi-basoetan bai ez da aurkitzen. Ez bata, ez bestea ez dira oso ezagunak baserri-inguruetan; izan ere, adar eta hostoen muturretan bizi diren in-sektuak harrapatzeko espezializatu dira eta beraz, ez dira ikusten errazak zuhaitzen nahaspilaren barruan. Mendi-erregetxoak oso populazio txikia du Euskal Autonomi Erkidegoan, eta 600 metroko altueratik gora dauden Pini Gorriko basoetan eta adineko konifero-landaketa batzuetan baino ez da aurkitzen. Gorbeiaiko Parkean Pinu Gorriko landa-ketetan bakarrik aurkitu dira espezie honetako ale habiagileak. Duen dentsitate txikia (0,45 hegazti/10 hektarea) eta haren habitat murrizta direla eta, espezie honen kontserbazioa estuki uztarturik dago Parkean mota honetako pinudiek estaltzen duten azalera txikia mantentzearekin.



Erregetxo Bekainzuriaren kontserbazioaren estatusa aldiz, aldekoa dela dirudi, zeren mota guztietako basoetan aurkitzen baita eta ziurrenik Euskal Autonomi Erkidegoak popula-zio ugaltzaile handiena duen hegazti-espeziea baita.

NEURRIAK: luzera: 18 cm. Pisua: 33-45 g.

EULI-TXORI BELTZA

(Ficedula hypoleuca)

Oso berezia da arrak araldian erakusten duen Lumadiaren kolorea: gainaldea beltza eta azpial-dea aldiz, zuria, eta hego-zerrenda zuri bat eta orban zuri bat bekokian. Udazkeneko mudaren ostean, arrek emeak eta gazteek izan ohi dutenaren antzeko Lumadia hartzen dute: azpialde zuria, eta gainalde arrea, hego-zerrenda zuri batekin. Euskal herriak azken itxura hau ikusten diogu gehienetan, oso euli-txori ugaria eta nabarmena baita udazkeneko pasean (abuztua/urria). Urte-sasoi honetan non-nahi aurkitzen dugu, zutoin, hesi, zuhaixka eta zuhaitzetatik



bere fruitu moduko hots bereizgarria etengabe egiten. Edonola, haren populazio habiagilea oso urria da Euskal Autonomi Erkidegoan; izan ere, dagokeena duen habitata osatzen duten adineko harizti eta ameztiek gure lurraldean oso eremu txikia azaltzen dutelarik, ehun bikote baino gutxiago ugaltzen bide dira bertan. Gorbeian ere, oso urria da Euli-txori Beltza, eta Parkearen arabar lurraldeko unada zahar jakin batzuetan baino ez da aurkitzen: Haritz Kandugabekoetan (0,33 hegazti/10 hektarea), Ametz Arruntekoetan (0,74 hegazti/10 hektarea) eta haritz eta pagoez osaturiko baso mistoetan (0,19 hegazti/10 hektarea). Espezie honek duen populazioa dozena bat bikote ugaltzaile baino gutxiagokoa da zalantzarik gabe eta haren kontserbazioa estuki loturik dago ugaltze-eremuetako zuhaitz zaharren irautearekin

NEURRIAK: luzera: 12,5 cm. Pisua: 13-14 g.

KASKABELTZ TXIKIA (*Parus palustris*)

Gainaldean kolore arrea eta behealdean kolore zuria azaltzen duen kaskabeltz, kapirotea eta paparra kolore beltz distiratsukoa izaten dute. Nagusiki geldikorra den baso-txoria da, eta neguan transhumantzia-mugimenduak egiten dituelarik, taldeak eratzen ditu sarri askotan erregetxoekin, okilekin, gerri-txoriekin eta bere familiako hegaztiekin. Urte-sasoi honetan, elikatzeko lurreko goroldioak eta orbela, eta zuhaitzen alderik urrunenak miatzen ditu. Espezie hau hostozabal-baso hezeei loturik dago eta dentsitate handienak lortzen ditu zuhaixka-estalki garatua duten formazio helduetan. Gorbeiaiko Parkeko baso hostoerorkor guztietan aurkitzen da, eta bereziki ugaria da Altubeko pagadian. Konifero-landaketak saihestu eta baso hostozabal helduak behar dituenek, askoz ere populazio txikiagoa du



Bizkaiko eskualdean. Parkeko isurialde honetan espezie honen kontserbazioa bermatzekotan, bertan dirauten adineko zuhaitz autoktonodun eremu urriak zaindu egin behar dira ezinbestez.

NEURRIAK: luzera: 11,5 cm. Pisua: 11 g.

AMILOTX URDINA (*Parus caeruleus*)

Erraz bereizten da familia berezko beste espezie-etatik, kaskoa,hegoak eta buztana urdinak dituelako. Bularra horia izaten da, eta gibelaldea berde matea. Ohiko baso-espeziea da, zuhaitzen muturretako adar-txoetan intsektuak harrapatzen espezializaturik dagoena. Argi eta garbi saihesten ditu konifero-basoak, eta beraz, haren



populazioak atzeraka doaz Euskal Herriko atlantiar isurialdean. Gorbeian, ohikoa izaten da mota guztietako baso hostoerorkorretan eta ez da azaltzen edo oso arraroa izaten da Parkeko konifero-landaketa guztietan. Espezie geldikor gisa jokatzen du, baina joan-etorriak egiten ditu beste hegazti batzuekin batera, udazkenean eta neguan.

NEURRIAK: luzera: 11,5 cm. Pisua: 9-10 g.

KASKABELTZ HANDIA (*Parus major*)

Aurrekoak bezala, espezie honek kasko eta ezdarri beltzak ditu eta masaila zuria. Edonola, askoz ere handiagoa izaten da, ez inolako zuririk garondoan eta ezdarriko kolore beltzak horia den sabelaren erdia zeharkatzen du marra zabala eratuz. Emeak erraz bereizten dira arretatik, aipaturiko marra estuagoa eta desitxuratuagoa dutelako. Euskal herrian, eta bai Gorbeian ere, espezie arrunta da mota guztietako zuhaizdun eremuetan, baina baso hostozabalak ditu gogokoen. Konifero-landaketetan urriak izaten dira, honelakoetan baso naturalen bereizgarriak diren zuhaitz eta zuhaixka gutxi baitaude eta habiak kokatzeko zulo gutxi aurkitzen baitituzte.

Neguan nabariki murrizten dira Euskal Herriko goi-basoetan, eta horrek pentsarazten digu nolabaiteko garrantzia duten transhumantzia-mugimenduak gertat-



zen direla egokiagoak izan daitezkeen negu-eremuetara.

NEURRIAK: luzera: 14 cm. Pisua: 19 g.

PINU KASKABELTZA (*Parus ater*)

Gainalde grisaxka eta azpialde zuria duen baso-hegazti txikia; erraz bereizten da buruaren koloreengatik: kasko eta aztarri beltzak, eta masailak eta garondoa zuria. Ohikoa izaten da ondo garaturiko Euskal Herriko baso guztietan, batez ere konifero-basoetan. Adarren muturretan eta bereziki pinuen azikuletan bizi diren harrapariak ehizatzeke espezializatu den intsektujalea da. Pinaburuak, prozesionariaren poltsak, lurra eta zuhaixkak ere miatzen ditu sarritan. Udazkenean eta neguan hainbat espezie-tako koniferoen haziak ere jaten ditu, eta dentsitate handiak lortzen ditu uzta oparoko urteetan. Habia edozein motatako zuloetan bai eta lurtean ere egiteko gauza denez, arrakasta handia izan du konifero-landaketak eta bereziki Intsinis Pinukoak kolonizatzerakoan. Parkeko zuhaizdun eremu guztietan aurki daiteke, baina ugariagoa izaten da pinuetan eta ugariagoa pagadietan.



Beste kaskabeltz eta amilotx batzuk bezala, Pinu-kaskabeltza geldikorra da, baina udazken-neguetan beste espezie batzuekin elkartzen da eta lurraldean zehar joan-etorriak egiten dituzten taldeak eratzen ditu.

NEURRIAK: luzera: 11 cm. Pisua: 9 g.

HARKAITZ-TXORIA (*Tichodroma muraria*)

Espezie nahastezina. kolore grisaxka eta hego gorriak dituelarik, haren hegaldiak tximeletena gogorarazten digu. Hegazti hau Kantauriar Mendilerroko eta Pirinioetako malkarretan kokatzen da, 1.800 metroko altueratik gora. Ugaltze-sasoiaren ostean, ale asko sakabanatu eta askoz ere beherago jaisten dira, bai eta kostaldeko harkaitz batzuetaraino ere hel daitezke. Sakabanaturiko hegazti hauek ikus daitezke noizik behinka gure mendietan urriaren bukaeratik martxoaren bukaera arte.

NEURRIAK: luzera: 16-20 cm. Pisua: 15-20 g.



AMILOTX MOTTODUNA (*Parus cristatus*)

Parido hau beste amilotxetatik eta kaskabeltzetatik bereizten duen gandar zuria-beltz deigarriari egiten dio erreferentzia espezie honen ize-nak. Baso-espeziea da eta mota guztietako basoetan aurki daiteke; edonola, konifero-formazioak nahiago ditu. Euskal Herrian eta bai Gorbeiaiko basoetan ere, pinudietan detektatu ohi dira dentsitate handienak, bai berezkoetan bai landatu-takoetan. Bikotekide bien artean erdi-ustelduriko enbor edo adar batean industen duten hutsunean kokatzen dute habia. Intsektuez eta beste artropodo batzuez elikatzen da, eta horretarako zorua miatzen du batez ere, baina sarritan zuhaitzen enborra eta adar txikiak ere miatzen ditu. Gainerako paridoak bezala, espezie geldikorra da, eta udazken-neguan Parkeko basoetan nora ezean ibiltzen diren hegazti txikien taldeetan parte hartu ohi.



NEURRIAK: luzera: 11,5 cm. Pisua: 11 g.

BUZTANLUZEA

(*Aegithalos caudatus*)

Kolore zuri, beltz eta arrosako hegazti ñimiñoa; luzera osoaren erdia baino gehiago buztan luze-ri dagokio. Euskal zuhaizdun eremu guztietan aurkitu ohi den baso-espezia da; edonola, nahiago izaten ditu baso hostozabalak, neguan nahiz ugaltze-sasoian. Hala ere, ez da oso espezie ugaria, eta haren agerpena nabariki baldintzatzen du nolabaiteko oihanpea egoteak, askotan erabiltzen baitu substratu hau harrapakinak bilatzeko eta habia kokatzeko. Habia arrautza tankerako goroldiozko bola izaten da, kanpoaldean likenez eta barrualdean luez estalita dagoena. (eta 12 arrautza bitartean egiten dituzte, eta sasoi bakoitzean hainbat errute egin ditzakete. Lumatzearen ostean, buztanluzeek familia-talde trinkoak eratzen dituzte, eta basoan zehar ibiltzen dira nora ezean



beste hegazti txiki batzuekin batera, batez ere amilotx eta kaskabeltzekin.

NEURRIAK: luzera: 14 cm. Pisua: 8 g.

GERRRI-TXORI ARRUNTA

(*Certhia brachyactyla*)

Gainaldeak arreak eta azpialdeak zuriak dituen hegazti txikia, moko luze eta makurra duena.

Zuhaitzen enborren eta adar lodien azalean, eta goroldio eta likenetan bilatzen dituen intsektuez elikatzen da. Baso gehienetan bizi da, ondo garaturiko zuhaitzez osaturik daudenetan behintzat. Euskal Herrian, Intsinis Pinuko landaketa helduetan neurtu dira dentsitate handiak, eta apur bat txikiagoak badadi eta hariztietan. Parkean baso-ingurune guztietan detektatu dira udan,baina dentsitate handienak hariztietan neurtu dira. Parkean eta neguan noizik behinka detektatu da Basoetako Geri-txori (*Certhia familiaris*); Iberiar Penintsulan, espezie hau ia bakarrik aurki daiteke Kantauriar Mendileroko, Sistema Iberiarreko eta Pirinioetako basoetan, bai eta Nafarroaren ipar-erdian dau-



denetan ere.

NEURRIAK: luzera: 12,5 cm. Pisua: 8-12 g.

GARRAPOA

(*Sitta europaea*)

Hegazti potoloa; gainaldea gris urdinxka kolorekoa du, begiak zeharkatzen dituzten zirrinta beltz banarekin, eta azpialdeak, gorriak edo okre antzekoak. Espezie hau, ia erabat zuhaitzarrak delarik, deigarria da enborretan zehar buruz behera jaisteko duen trebetasuna; izan ere, ez okilak ez gerri-txoriak ez dira hone-lako balentriarik egiteko gauza.

Ugaltze-sasoian ezinbestekoak ditu habia egiteko zuloak dituzten adineko zuhaitzak. Harrapatzaileen arriskua murrizteko, txikiago egiten du habiaren sarreraren diametroa, bere



listuaz bustitako buztin-bola txikiak itsatsiz; hauxe da zalantzarik gabe espezie honen jokaeraren ezagarririk bereziena.

Gorbeiaiko Parkeari dago-kionez, dentsitate txikiak lortzen ditu amezti eta pagadietan eta ugaritasun handiena lortzen du hariztietan.

Zuhaitz hostoerorkorren enbor eta adar lodietan elikatzen da nagusiki, eta, neurri txikiagoan bada ere, zorua eta zuhaitzen adaburuak ere miatzen ditu. Konifero-basoak eta baso hostozabal gazteak saihesten ditu; hori dela eta, espezie honen kontserbazioa, beste espezie troglodita batzuen bezala, estuki lotuta dago baso hostozabal helduen kontserbazioarekin.

NEURRIAK: luzera: 14 cm. Pisua: 20-22 g.

ANTZANDOBI ARRUNTA

(*Lanius collurio*)

Moko indartsua eta apur bat gako itxurakoa duen gaztaina-koloreko gibelalduen hegaztia. Arrak buru gris urdinxka izaten du, moztarro beltz deigarriaz zeharkaturik eta emeak aldiz, buru arre grisaxka eta moztarro arre iluna.

Antzandobiak ezagunak dira zenbait harrapakin zuhaitzen arantzetan edo alanbre arantzedunetan iltzatuz jakigordailuak sortzeko duten ohituragatik. Antzandobi honen dietaren %90a intsektuek osaturik dago, baina narrastiak, saguak eta hegazti txikiak ere harrapa ditzake. Maizenik harrapatzen dituen intsektuak dira kakalardoak, oropteroak (kilkerrak eta matxinsaltoak) eta himenopteroak (inuriak, erleak eta liztorrak).

Espezie hau ohikoa izaten da tartekaturik heskaiek eta



sakabanaturiko zuhaitzak dituzten eremu irekietan. Izan ere, Euskal Herriko dentsitate handienak atlantiar landazabaletan lortzen dira. Parkean, espezie urria da, eta oso banaketa lokala du landazabaletan eta zenbait elorditan (Altzagorta, Saldropo, Arreskileta, Arraba,...) eta 0,83-1,67 hegazti/10 hektareako dentsitateak lor ditzake. Antzandobi arrunta hegazti migratzailea da, eta negulurraldeak Afrikaren hegoaldeko herrialdeetan ditu. Parkean espezie hau maitzaren hasieran agertzen da, lehen aleak heltzen direnean, eta irailaren bukaera arte ikus daiteke, sasoi honetan oraindik ere ikus baitaiteke atzeraturiko aleren bat.

Parkean beste antzandobi-espezie bi detektatu dira: Antzandobi Handia (*Lanius excubitor*), neguan landazabaleko eremuetan ikusi dena, eta Antzandobi Kaskagorria (*Lanius senator*), Parkean oso gutxitan agertzen den udako espeziea; inoiz ikusten diren aleak migrazioan doazenak bide dira.

NEURRIAK: luzera: 17 cm. Pisua: 28-30 g.

MIKA

(*Pica pica*)

Nahastezina den korbido zuri-beltza, oso buztan luzea duena.

Erdi-soilduriko eremuetan bizi da, bereziki heskaiekin edo sakabanaturiko zuhaitzen tartekaturik dauden laborantza-eremuetan. Haren elikagai nagusiak dira artropodoak (kakalardoak, kilkerak, inuriak,armiarmak,...) eta landare-materia, batez ere, zerealak. Neurri txikiagoan bada ere, hegazti txikiak eta ugaztunak (saguak, lursaguak,...) ere jaten ditu.

Euskal Herrian espezie arrunta da lurralde gehienean,baso hutseko eta mendiko eremuetan izan ezik. Gorbeiaiko Parkean ohikoa izaten da altuera txikietan kokaturiko landazabal eta larredietan, eta noizik behinka baino ez da agertzen 700 metroko altueratik gora.

oro har espezie geldikorra da, lekualdaketa laburrak baino egiten ez dituenak; lekualdaketa horiek neguan egindako



transhumantzia-mugimenduak bide dira.

NEURRIAK: luzera: 40-45 cm. Pisua: 200-250 g.

ESKINOSOA

(*Garrulus glandarius*)

Ixtura ikusgarria eta ohitura bitxiak dituen espeziea. Haren Lumadian nabariak ira hegoetako estal-luma urdinak, ipurtxuntxur zuria, bibote beltz zabala eta bekokiko luma zuri-beltzak, tentetu eta gandor moduko bat era dezaketenak. Bereziki arretatsua da eta gizakiaren eta balizko beste harrapatzaile batzuen presentzia salatzen du alarma-oihu zalapartariak eginez; era honetan ohar-aratzen ditu basoko gainerako biztanleak. Mota guztietako basoetan bizi da, baina nahiago ditu baso helduak, bereziki zuhaitz hostoerorkorrez osaturikoak. Euskal Autonomi Erkidegoan haritz ugari dituzten Intsinis Pinuko landaketa helduetan eta Haritz Kandugabeez, ametzez eta erkametez osaturiko basoetan lortzen ditu dentsitaterik altue-



nak. Gorbeiaiko eremu zuhaizdun gehienetan bizi da, baina nahiago izaten ditu adineko harizti eta pinudiak. Haren dieta askotaraino landare- eta animalia- elikagaien osaturik dago, baina ugaltze-sasoian nagusi dira animalia-harrapakinak (intsektuak, zizareak, mikrougaztunak,...). Udazkenean eta neguan aldiz, landare-materia kontsumitzen du batez ere, eta bereziki gogokoak ditu ezkurak, sasoi honetan irensten duen elikagai-bolumenaren erdia bide direnak. Erabiltzen dituen fruituen zati bat lurpean ezkutatzeko ohitura du, negua aurrera doanean elikagaiak urriago egiten diren heinean kontsumitzeko. Hortaz, kalkulatu izan da Eskinosa bakar batek sasoi bakar batean 4.000 hezur inguru lurpea ditzakeela. Ohitura honek, fruituen sakabanatzea errazten du eta beraz, basoen leheneratze eta hedapenari laguntzen dio; izan ere fruitu asko lurpean ahazturik gertatzen dira eta ernaldu egiten dira udaberria heldutakoan.

NEURRIAK: luzera: 34 cm. Pisua: 140-190 g.

BELATXINGA MOKOGORRIA

(*Pyrrhocorax pyrrhocorax*)

Belatxingak Gorbeiaiko larredi eta harkaitzetan maizenik ikus dizakegu hegaztiak dira. Mokogorriak beltz distiratsua du lumadi osoa, eta mokoa eta hankak aldiz, gorriak. Iberiar Penintsulan itsas labarretan nahiz mendi-harkaitzetan egiten ditu habiak, abere ugaridun larrediekin lagunduta badaude. Euskal Autonomi Erkidegoaren lurraldean ez du habiarik egiten itsas labarretan, eta kolonia gehienak kostatik urruneko malkarretan kokaturik daude, 800 metroko altueratik gora. Habiak zuloetan, zartadura eta kobazulo iris-gaitzetan egiten ditu, koloniak nahiz bakarka.

Belatxinga Mokogorria zein Mokohoria oso espezie taldekoak dira ugaltze-sasoitik kanpo, eta askotan bi espezieetako aleak dituzten talde handiak eratzen dituzte. Belatxingak, hegazti intsektujaleak dira oso har, baina bien dietan da garrantzitsu samarra landare-zatikia. Intsektuen artean aipatzekoak dira tximeleta eta euli-larbak zein pupak, eta batez ere, kakalardoak. Euskal Autonomi Erkidegoko populazio ugaltzailea 250-400

bikote ingurukoa dela estimatu da eta horietako 25 bat Gorbeiaiko Parkean ugaltzen dira, 900 eta 1.200 metroko altueren artean kokaturiko haitzetan eta kobazulo iris-gaitzetan.

NEURRIAK: luzera: 40 cm. Pisua: 280-360 g.



BELATXINGA MOKOHORRIA

(*Pyrrhocorax graculus*)

Mokogorriaren oso antzeko da, baina horretatik erraz bereizten da, moko horia eta ez horren makurra duelako. Belatxinga biak aurkitu ohi dira mota bereko habitatetan, baina Mokohoria 900-1.000 metroko altueratik gorako eremuetara mugaturik dago euskal mendietan. Hortaz, ez da oso espezie ugaria, eta haren populazioa 300 bikote ugaltzaile baino gutxiagokoa bide da. Gorbeian, 800 metroko altueratik gora ikus daiteke, baina hainbat 1.100 metroko altueratik gorako leize eta kobazuloetan egiten ditu. Parkean hamar bikote inguru ugaltzen direla estimatu da, eta horietako gehienak Dulauko trokartearen buruan aurkitu dira. Ugaltze-saspetik kanpo, maiz ikus daitezke berrogeita hamar ale inguru. Bertako hegaztiak oso jokaera geldikorra izaten dute, ia inoiz ez baitira ikusten ugaltzen diren goi-eremuetatik at.



NEURRIAK: luzera: 38 cm. Pisua: 170-330 g.

ERROIA

(*Corvus corax*)

Biak erabat beltzak badira ere, Erroia tamaina handiagatik, lepo luze eta mardulagatik eta buztan zirikara luzeagatik bereizten da Belabeltzetik. Euskal Herrian eremu irekietan bizi da nagusiki, batez ere itsas labarren eta mendi-harkaitzen inguruan, baina ugaria da baita zabortegeien inguruan ere. Erroiak askotariko elikagaiak jaten ditu: landare-materia (gramineo-haziak, ezkurak, gaztainak, e.a...), intsektuak, ugaztun txikiak eta hegaztiak. Edonola, sarraskia da elikagai-iturri nagusia haren banaketa-eremuaren zati handian. Ildo honetatik, Gorbeiaiko Parkea espezie honetako populazio garrantzitsua izaneko baldintza egokiak biltzen dituen lurraldea da: habia kokatzeko toki egokiak eta sarraski ugari urte osoan zehar. Parkean ugaltzen den populazioaren tamaina zenbatekoa den zehazki ez dakigun arren, 14-



20 bikotez osaturik dagoela estimatu da.
NEURRIAK: luzera: 64 cm. Pisua: 0,8-1,5 kg.

BELALELTZA

(*Corvus corone*)

Arunta da Euskal Herri osoan; Mika bizi den inguruneen antzekoetan bizi da, baina basoetako argiune antzekoetan bizi da, baina basoetako argiune eta ertzetan ere aurki daiteke; izan ere, inoiz baso barruan ere ugaltzeko: haren elikadura artropodoetan oinarriturik dago, bereziki intsektuetan eta zerealean.

Parkearen eremu gehienean banatuta dago, baina arraroagoa da edo ez da azaltzen goi-larredi eta harkaitzetan, eta ez baso zabaletan ere. Espezie geldikorra da, eta neguan lekualdaketa laburrak egiten dituzten ale ugari taldeak eratzen ditu.

NEURRIAK: luzera: 47 cm. Pisua: 549-600 g.



ARABA ZOZO PIKARTA (*Sturnus vulgaris*)

Kolore beltzeko hegazti potoloa, moko luzea, buztan laburra eta hego triangeluarrak dituena. Helduek, moko horia izaten dute, gorputza zuriz leunki pikardatua. Neguan, moko iluna izaten da eta lumadia pikardatu bizi deigarriaz estaltzen da. Gazteek lumadi arre matea izaten dute, eta pikardatuz joaten dira helduz doazen heinean. Basoko argiune eta ertzetan, eta sakabanaturiko basoak dituzten eremu irekietan bizi da. Habiak egiteko gogokoak ditu zuhaitzen zuloak. Euskal Herriko ipar-erdian banatuta dago, eta kostako haranetako landazabaletan eta barrualdeko atlantiar haran batzuetan aurkitzen da. Euskal Herriko hegoalde-erdian Araba Zozo Beltza (*Sturnus unicolor*) aurkitzen da; aurrekoaren antzeko espeziea da, baina espezie honetako helduen lumadia ez dago pikardaturik ugaltze-sasoian. Nagusiki eraikinen arrakala eta zuloetan egiten ditu habiak eta haren habitat gogokoa, herrien inguruko laborantza-eremuak izaten dira. Gorbeiaeren hegoaldeko isurialdean, Araba Zozo biak aurkitzen dira batera, eta zenbaitetan identifikatzen zailak diren



aleak ikus daitezke noizik behinka, bi espezie hauek hibridaziotik sortu direnak. Gure latitudeetan ugaltzen diren Araba zozoak, geldikorrak dira nagusiki. Edonola, neguan eta udazkenean Araba zozo pikart miratzaille ugari heltzen zaizkigu eta haietako asko elkartu egiten dira hirietako plaza eta parkeetan lo egiteko: milaka aleko saldoak ertzen dira askotan.

NEURRIAK: luzera: 22 cm. Pisua: 79-90 g.

ETXE-TXOLARREA (*Passer domesticus*)

Herri eta hirietan oso ugariak direlarik, txoririk ezagunenetako bat dela esan dezakegu. Arraren ezaugarriak dira kasko grisa, atzeko eta alboetako ertzak gaztaina-kolorekoak dituena, masaila zurixkak eta adur-zapi beltz zabala. Emeak eta gazteek gainalde arrea izaten dute eta azpialde zirixka. Euskal Autonomi erkidegoko hiri eta herrigune guztietan bizi da, bai-aurria izaten da baserrietan eta isolaturiko eraikinetan. Zuhaitz ugari ingurune-keta mendialdeak saihesten ditu. Hori dela eta, oso espezie urria da Parkean eta haren populazioa batez ere Altube eta Ziorragako herriguneetan habiak egiten dituzten bizpahiru dozena bikotetara mugaturik dago. Landa-txolarrea (*Passer montanus*), Etxe-txolarrearen antzekoa da, baina txikiagoa. Etxe-txolarretik bereizten da gaztaina-koloreko kaskoa eta masail zuri garbien gainean marka beltz bat izateagatik. Euskal herrian, herriguneen inguruko laborantza-eremuetan bizi da, nagusiki altuera baxuetan. Ez da



egiaztatu. Parkearen barruan ugaltzen denik, baina baliteke bikoteran bat hego-mendebaldeko eskualdean ugaltzea.

NEURRIAK: luzera: 14,5 cm. Pisua: 22-31 g.

NEGU-TXONTA (*Fringilla montifringilla*)

Txonta Arruntaren antzekoa, batez ere negu-Lumadia duenean. Edonola, erraz bereizten da aurrekotik ipurtxuntxurra zuria duelako. Eskandinaviako herrialdeetatik datozen txonta hauek, urria eta apirila bitartean ikus daitezke gure latitudeetan, neguko hilabeteetan eta hotz-bolada bortitzak gertatzen direnean apur bat ugariagoak izanik. Laborantza-eremuetan eta larredietan aurkitzen dira, eta batez ere pagadietan, bereziki pagatxa-uzta uneko neguetan. Sarritan Txonta Arruntarekin batera azaltzen dira. Parkean nahiko maiz ikus daiteke pagadietan.

NEURRIAK: luzera: 14,5 cm. Pisua: 22-30 g.



TXONTA ARRUNTA (*Fringilla coelebs*)

Ohihoa izaten da Euskal Herriko zuhaizdun ingurune gehienetan, eta Intsinis Pinuko landaketetan lortzen ditu dentsitate handienak. Euskal Autonomi Erkidegoko espezie habiagilerik ugarienetakoa da.

Arrak gris urdinxka ditu pileoa eta garondoa, gaztaina-koloreko gibelaldea, ipurtxuntxur berdexka eta masaila, bular eta sabel arre arrosaxkak; emeak eta gazteek kolore motelak dituzte, gainaldean arreak eta azpialdean grisaxkak. Denak bereizten dira hegan ari direnean zuri koloreko hego-marra bikoitz deigarria izateagatik. Parkean, mota guztietako zuhaizdun eremuetan ugaltzen da, bai eta landazabaletan ere, eta halaber tamaina ertaineko zuhaitz eta zuhaitzak dituzten larredi eta sastrakadietan ere. Ugaltze-sasoian, dieta mistoa izaten dute: bai artropodoak, bai haziak jaten dituzte. Neguan, txontek basoetatik alde egiten dute eta eremu irekietara abiatzen dira, batez ere laborantza-eremuetara, sasoi honetan batez ere hegazti hazizale modura jokatzen baitute. Urte-sasoi honetan Gorbeian ikusten diren ale bakarrak dira haran-hondoetako landazabaletan zehar



nora ezean dabilzan taldeetakoak. Edonola, pagatxa-uzta oparoa duten udazkenetan, Parkeko pagadietara milaka txonta heltzen dira eta bertan irauten dute elikagai-iturri hau agortuz doan arte, alegia, negua aurreratu samar dagoen arte. Espezie ugaria izaten da migrazio-paseetan ere, bai udazkenekoan (iraila/azaroa), bai udaberrikoan (otsaila/apirila).

NEURRIAK: luzera: 15 cm. Pisua: 19-23 g.

ELUR-TXONTA (*Montifringilla nivalis*)

Buru griseko hegaztia, moko beltza, gaztaina-koloreko gibelaldea eta sabel zuria duena. Neguan, helduek zein gazteek hori laranja kolorekoa dute moko. Errazago bereizten dira hegan ari direnean, buztana beltza baitute kanpoko lema-lumak zuriekin, eta hegoak ere zuriak baitira, beltzak diren lehenengo arraun-lumak izan ezik. Kantauriar Mendi-lerroan eta Pirinioetan ugaltzen da, eta 1.800 metroko altueratik gorako larredi harkaitz eta hartxingadietan aurkitu ohi da. Udazkenean eta neguan altuerajaitsierak egiten du, eta bai mugimendu luze samarrak ere. Hori dela eta, noizik behinka ikus daiteke espezie hau gure mendialdeetan, azarotik martxoaren ardira arte.

NEURRIAK: luzera: 18 cm. Pisua: 32-40 g.



TXORU ARRUNTA (*Carduelis chloris*)

Mendi-txirriskilaren antzekoa, baina askoz ere mardulagoa. Gainera ez du kolore grisik garondo-aneta hori koloreko hego-marra bakarra izaten du, hegan ari denean oso ondo ikusten dena. Sakabanaturiko zuhaitzak dituzten eremu irekietan aurkitzen da. Euskal Herrian ugariagoa da altuera baxuetan. Ugaltze-sasoian oso espezie urria da Parkean, eta haren banaketa landazabaletara eta Lawson Altzifreko landaketetara mugaturik dago. Neguan altzifreei eta alertzei loturik azaltzen da, bereziki hazi-uzta oparoko urtea gertatzen denean. Migrazio-paseetan ere ikus daiteke, bai udazkenekoan (urria), bai udaberrikoan (martxo/apirila).

NEURRIAK: luzera: 14-15 cm. Pisua: 25-31 g.



MENDI-TXIRRISKILA (*Serinus citrinella*)

Kolore berde horixkako fringilido txikia; nabarmenak dira buruaren eta gibelaldearen kolore grisa, bi hego-marra horixka eta kolore bereko ipurtxunturra. Espezie hau ohikoa izaten da mendialdeetako baso irekietan, munduan toki bakan batzuk baino ez direnak: Alpeak, Frantziako Mazizo Zentrala, Corcega-ko irla eta Iberiar Penintsulako mendiak. Azken hauetan munduko populazioaren zatirik handiena bizi direlarik, milioi laurden bikote ingurukoa dela estimatu da. Baso-ertzetan edo bakanduriko baso-eremuetan aurkitzen da, beti ere goi-larredietatik hurbil.

Euskal Autonomi Erkidegoan uren banalerroko mendietan bizi da batez ere, 600 metroko altueratik gora, eta haren populazioa 5.000 bikote ingurukoa dela estimatu da. Bai Gorbeian, bai gainerako mendietan, pagadi eta pinu-landaketen (Intsinis, Gorria eta Larizio) ertzetan eta bakanduriko eremuetan bizi da; edonola, hurbil larrediak behar dituelarik, normalean oso sakabanaturik egoten da. 0,21-2 hegazti/10 hektareako dentsitateak neurtu dira Intsinis Pinuko goi-landaketetan eta 1,5 hegazti/10 hektareako dentsitateak uren



banalerroko mendietan kokaturiko pagadietan. Nagusiki konifero- eta gramineo-haziez elikatzen bada ere, kumaldian intsektu ugari ere harrapatzen ditu. Udazkenean hegazti honen talde handiak ikus daitezke Gorbeia-ko goi-larredietan gramineoz elikatzen.

NEURRIAK: luzera: 12 cm. Pisua: 11-15 g.

TXIRRISKIL ARRUNTA (*Serinus serinus*)

Moko ñimiñoko fringilido honek, lumadi horixka du zirrinta ugarirekin. Arrak hori bizi-koloreko burua du, eta emeak eta gazteek aldiz, arrexkak izaten dira. Denek izaten dute ipurtxuntxur hori nabaria.

Espezie hau arrunta izaten da Euskal Herrian, bereziki kostaldean eta mediterranean isurialdean. Urriagoa egiten da geografia menditsuagoa eta habitata basotsuagoa den heinean. Sakabanaturiko zuhaitzak eta zuhaixkak dituzten ingurune irekietan aurkitzen da, eta bai baso-ertzetan eta argiuneetan. Parkean ez dago espezie ugaria baina apur bat arruntagoa izaten da hariztien eta konifero-landaketen argiune eta ertzetan. Dentsitaterik altuenak landazabaletan neurtu ira.

Gure latitudeetako txirriskilak migratzaileak izaten dira eta ugaltze-lurraldeetatik alde egiten dute udaren bukaeran Penintsulako eremu beroagoetara joateko. Zenbait ale



Gibraltarreko itsasartea ere zeharkatzen dute negua Afrikaren iparraldean igarotzeko.

NEURRIAK: luzera: 11,5 cm. Pisua: 9-14 g.

TXOKA ARRUNTA (*Cardueis cannabina*)

Gorputz arreko eta buru grisaxka fringilidoa, hegozerrera zurixka deigarria duena. Araldian, arra bereizten da, bularra edo bekokia gorriak dituelako. Zuhaitz- eta sastraka-estalki murrizteko eremu soilduetan aurkitzen da. Euskal Autonomi Erkidegoan, arrunta da mediterranean inguruneetan eta goi-larredi eta txilardietan, baina urriagoa da atlantiar isurialdean. Gorbeian ohikoa izaten da goi-larredietan, bereziki tarteka-marteka txilardiak eta otadiak dituztenetan. Jokaera migratzailea edo behintzat transhumantea bide duten hegaztiak dira; izan ere, goiko ugaltze-eremu hauetatik alde egiten dute udazkenaren hasierako egunetan.

NEURRIAK: luzera: 13,5 cm. Pisua: 15-21 g.



KARNABA (*Carduelis carduelis*)

Txori hau ospetsu eta herrikoienetakoa da; haren bereizgarriak dira aurpegi gorria eta hegan ari denean oso deigarria den hegoen beltzaren gaineko orban horia. Gazteak arreak izaten dira eta ez dute inolako gorririk, baina badute marra hori bat hegoetan. Iberiar Penintsulako lurraldetik epelenetako sakabanaturiko zuhaizdun eremu irekietan bizi da, baina mendialdeak saihesten ditu. Euskal Autonomi Erkidegoan, landazabaletan aurkitzen da batez ere, bereziki, altuera baxuetan kokaturikoetan. Parkean ere, landazabaletan neurtu dira dentsitate handienak, baina karnabak konifero-landaketen ertzak eta sakabanaturiko zuhaizdun larredi batzuetan ere aurki daitezke, oso dentsitate baxuak izaten badituzte ere. Neguan gehienek Parke-ko alde egiten badute ere, zenbait ale ikus daitezke landazabaletan eta al-



tzifre eta alertze-landaketetan zehar nora ezean dabiltzala txirriskila eta tarina talde joriekin nahasita.

NEURRIAK: luzera: 12 cm. Pisua: 14-17 g.

TARINA (*Carduelis spinus*)

Txirriskila Arruntaren antzekoa, baina mokoa luzeagoa du eta buztanaren oinarriaren bi aldeetan orban horiak ditu. Arra erraz bereizten da burugain eta kokots beltzengatik.

Oso noizik behinka eta oso gutxi ugaltzen da Euskal Autonomi Erkidegoan, batez ere Intsinis Pinuko landaketetan. Zenbait urtetan gertatzen den negu-oparotasunak noizik behinkako ugaltzearen aldekoa izan balukete ere, orain arte ez da bikote habiagilerik aurkitu Gorbeia-ko Parkean. Udatik kanpo, haltz-, alertze- eta altzifre-formazioetan zehar nora ezean dabilzan talde joriak eratzen ditu, zuhaitz hauen hazietan datzalarik tarinen udazken-neguko dietaren zatirik garrantzitsua.

NEURRIAK: luzera: 12 cm. Pisua: 12-18 g.



GAILUPA (*Pyrhula pyrrhula*)

Erraz identifikatzen den espeziea: moko beltza eta lodia, ipurtxuntxur zuria eta kapirote beltza. Arrak masailak, bularra eta sabelaren zati handia gorriak izaten dira, eta emearenak, gris arrosaxkak. Gazteak emeen antzekoak izaten dira baina ez dute kapirote beltzik eta mokoa argia izaten dute.

Euskal Herriko zuhaizdun habitat gehienetan bizi da, baina normalean ez du 1 hegazti/10 hektareako dentsitatea gainditzen eta arraroa izaten a mediterranean tankerako basoetan. Gorbeian baso-eremu guztietan aurki daiteke, baina ohikoagoa izaten da pagadietan, ameztietan eta altzifre-formazioetan; landazabaletan ere aurki daiteke. Ugariagoa izaten du ugaltze-sasoitik kanpo. Hortaz, abenduan 4 hegazti/10 hektareako dentsitateak neurtu dira hariztietan eta 6,15 hegazti/10 hektareako dentsitateak pagadietan. Bestetik, pagadietan 11 hegazti/10 hektareako



dentsitateak neurtu izan dira otsaileko eztei-aurreko mugimenduetan.

NEURRIAK: luzera: 14-15 cm. Pisua: 21-27 g.

MOKOLODIA

(*Coccothraustes coccothraustes*)

Hegazti lodi-potoloa, neguan hori matea den oso moko handia duena. Haren Lumadia arrea izaten da nagusiki, orban zuri-zabala duten hego beltzak, buztan zuria eta lepoa eta papar beltza inguratzen dituen idu-neko grisaxka izan ezik.



Nagusiki baso-hegaztia da, baina ez dakigu zein den Euskal Autonomi Erkidegoan duen ugaltze-estatusa; edonola, zalantzarik gabe oso urria da lurralde honetan. Hori dela eta interes bereziki hartu du Arriskuan dauden Espezieen Euskadiko Zerrenda. Ez dakigu



Parkean ugaltzen ote den, baina udako agerpena egiaztatu egin da Altubeko basoan. Apur bat ohikoagoa izaten da neguan (abendua/martxoa), eta orduan baso hostozabaletan ikus daiteke, bereziki pagadietan.

NEURRIAK: luzera: 16-17 cm. Pisua: 48-62 g.

MOKOKERRA

(*Loxia curvirostra*)

Buru lodiko eta moko indartsuko hegazti mardula. Arra gorri argia izaten da, eta emea eta gazteak aldiz, berde olibakora kolorekoak. Gazteak oso zirrintsuak izaten dira gainera. Masailen para-kuntza gurutzatua da haien ezaugarri bereizgarria; izan ere, pinu, alertze eta izeien konoen haziak ateratzeko moldaturik daude. Horretarako, fruitua zuhaitzetik askatu eta ondoren, egokitzen josten duten adar batera eraman, eta haziak ateratzen dituzte hanken bitartez estuki heltzen dioten bitartean.

Euskal Autonomi Erkidegoan, Arabako hegomendebaldeko Pinu Gorriko basoetan baino ez da habiagile arrunt eta erregularra; honela-



koetan 3,7 hegazti/10 hektareako dentsitateak neurtu dira. Konifero-landaketetan ere ugaltzen da, bereziki, uren banalerroko mendietan kokaturik daudenean, baina banaketa irregularra da eta urriagoa izaten da. Gorbeia Parkean zenbait bikote baino ez dira ugaltzen Pinu Gorriko birlandaketetan eta agian baita Intsinis Pinuko landaketaren batean ere. Ugaltze-sasoitik kanpo oso espezie ugaria izaten da konifero-eremu guztietan, batez ere udazkenean eta neguan, orduan ikus baitaitezke ehunka alez osaturiko taldeak. Kumaldia aldakorra bada ere, eta haien elikagai nagusia diren konifero-hazien uztaren arabera den arren, mokokerrak habiagile goiztiarrak dira eta urte askotan, gazteak independizaturik egon daitezke apirilaren hasierarako, eta orduan ekiten diote sakabanaketari.

NEURRIAK: luzera: 16-17 cm. Pisua: 34-48 g.



BERDANTZA HORIA

(*Emberiza citrinella*)

Gaztaina-koloreko ipurtxuntxurra eta buztanaren kanpo-luma zuriak dituen Berdantza. Arra oso ikusgarria da, burua eta azpialdeak hori distiratsuak baititu; emea antzekoa da baina kolore mateagoa eta marra gehiago ditu.



Espezie arrunta da eremu irekietan, eta gure geografian banaturik dago atlantiar landazabaletan, basoen argiune eta ertzetako sastrakadi batzuetan, eta sastrakadi-estaldura txikiko larredietan. Gorbeian espezie ugaltzaile arrunta da, eta sakabanaturiko zuhaixkak edo sastrakadiak dituzten eremu ireki gehienetan aurkitzen da, baina ez du inoiz



dentsitate handirik lortzen.

Euskal Herriko mendietan udaberrian eta udan bizi diren berdantza horiek, ugaltze-lurraldeetatik alde egiten dute urrian, eta agian, hurbileko haran-hondotara joaten dira, edo bestela, negua emateko klima leunagoa duten lurraldeetarako migrazio laburrak egiten bide dituzte

NEURRIAK: luzera: 16,5 cm. Pisua: 27 g.

MENDI-BERDANTZA

(*Emberiza cia*)

Aurreko espezieak bezala, gaztaina-koloreko ipurtxuntxurra eta kanpoko lema-lumak zuriak izaten ditu. Edonola, azpialdeak gorrixkak izaten dira, eta ezatarria, bularraren goialdea eta burua, griak; gainera, burua aurpegi-irudi nahastezina eratzen duten hiru zerrenda beltzez apainduta dago.

Eguzkiaren pean dauden zuhaixka-formazioetan ohikoa izaten den espeziea. Mendi-berdantza urri samarra da Euskal Autonomi Erkidegoan, eta lortzen dituen dentsitate maximoak 1 hegazti/10 hektarea izaten dira. Parkean, bikote gutxi batzuk detektatu dira Garaigorta, Urigoiti eta Ziorraga inguruan.

Gorbeia Parkean ikusi izan diren beste berdantza batzuk dira Zingira-beldantza (*Emberiza schoeniclus*), Saldropoko hezegunean pasean detektatu dena, eta Hesi-berdantza (*Emberiza cirulus*), Parkeko hainbat inguruneetan parean ere ikusi dena. Azken honek landa-



zabaletan eta baso-ertzetan egiten ditu habiak, baina edonola, oso populazio urria du.

NEURRIAK: luzera: 16 cm. Pisua: 20-30 g.

ELUR-BERDANTZA

(*Plectrophenax nivalis*)

Lurralde honetan ikusten diren aleek negu-lumadi berezia azaltzen dute: gibelalde arrea marra beltzarekin, eta kaskoa, aurikularrak eta bular-alboetako orbanak laranja kolorekoak. hegaldian, udako lumadiaren hego-irudi zuri-beltz bereizgarria mantentzen du.

Poloen ingurutik datorren espeziea da, eta Euskal Herrian kostaldean ikusten da batez ere, urritik urtarrilera arte.

NEURRIAK: luzera: 16,5 cm. Pisua: 24-30 g.



GARI-BERDANTZA

(*Miliaria calandra*)

Berdantza potoloa, kolore arre uniforme eta marra ilunak dituena. Oso fidakorra. Hegaldian eskegita mantentzen ditu hankak sarritan.

Altuera baxuetan kokaturik dauden soilduriko inguruneetako espeziea delarik, Euskal Autonomi Erkidegoan mediterranear laborantzetan (zerealak, mahastiak) eta kostaldeko landazabaletan aurkitu ohi da batez ere. Oso banaketa mugatua du Gorbeiaiko Parkean, Altubeko mendatean dauden landaredi belarkara altudun landazabaleko sail batzuetara mugaturik baitago.

Gari-berdantza hauek bisitari udatiar bezala jokatzen dute, eta ziurrenik nolabaiteko lekualdaketak egiten dituzte laborantza-eremuetara (Lautada eta Errioxa), bertan negu-populazio garrantzitsuak mantentzen baitituzte.



NEURRIAK: luzera: 18 cm. Pisua: 44-54 g.

MARTIN ARRANTZALEA

(*Alcedo atthis*)

Urtar ohiturak dituen hegazti nahastezin eta herrikoia. Burua eta hegoak kolore berde urdinxkakoak ditu, eta gibelaldea eta behealdeak laranja kolorekoak, zuria den eztarria izan ezik. Arrak moko beltza du, eta emea aldiz, behe-masaila laranja kolorekoa izateagatik bereizten da arretik.

Gogokoen dituen habitatak dira ibai-erreken erdietan behe-tarteak, baina neguan kostaldean ere aurkitzen da. Zortzi zentimetro baino txikiagoak diren arrainez elikatzen da. Hala egiteko beharrezkoa da lur-ezpondak egotea. Izan ere, habia ganbera batez eta bikotekide biek moko erabiliz bertara heltzeko eraikitzen duten tunel luze eta estu batez osaturik dago.

Euskal Autonomi Erkidegoan ugaltzen diren martin arrantzaleen populazioa zenbatekoa den ez dakigun arren, 210 bikote baino gutxiagoa dela estimatu da. Parkean 2-3 bikote ugaltzen bide dira, Altube eta Baias ibaietan zehar banaturik. Uren kutsadura eta ibaien ibilguetan gizakien eraginagatik gertatzen den ugaltze-eremuen desagertzea dira espezie honek banaketa-eremu osoan pairatzen dituen mehatxuak.

Bertako hegaztiak geldikorrak dira, baina zenbait alek lekualdaketa luze samarrak egiten dituzte. Gainera, udaren



bukaeratik aurrera, batez ere Frantziatik eta Erdi Europatik datozen hegaztiak hartzen ditugu.

NEURRIAK: 16-17 cm. Pisua: 35-40 g.

ARGI-OILARRA

(*Upupa epops*)

Espezie nahastezina. Nabariak dira gibelaldeko, buztaneko eta hegoetako marra zuri-beltz deigarriak, gainerako gorputzaren kolore kanela arrosaxka eta batez ere, moko luze makurra, eta punta beltzeko gandar irtena dituen burua.



Euskal Herrian oso urria da hegazti hau, lurralde honetan populazioek murrizte handia pairatu baitute, Ez da ugaltzen Parkean, baina zenbait ale bakarti ikus daitezke udaberriko pasean (otsaila/apirila) zein udazkenekoan (abuztua/iraila).

NEURRIAK: 28 cm.

Pisua: 55-80 g.

MALKAR-SORBELTZA

(*Tachymarpis melba*)

Tamaina handiko Sorbeltza, 55 zentimetro hego-luzera lor dezakeena. Gainaldean kolore arre argia izaten du, eta azpialdean zuria, aurreak diren buztanpeko estal-lumak eta eztarria zeharkatzen duen marra izan ezik.

Espezie hau ohikoa izaten da harkaitz beretan eta Euskal Autonomi Erkidegoan ia bakarrik aurki daiteke Arabako lurraldeko hegoaldeko mendietan. Gorbeiaiko Parkean 1-3 bikotez osaturik bide dagoen eta Aldamineko malkarretan kokaturik dagoen ugaltze-kolonia txiki baten berri izan dugu. Malkar-sorbeltza espezie migratzailea da, eta haren alerik goiztiarrenak apirilaren bukaeran ikus daitezke gure mendietan. Udazkeneko migratio-mugimenduak aldiz, abuztutik eta azaroaren hasiera bitartean gertatu ohi dira. Migratzailea da baita haren generokidea den eta Gorbeiaiko zeruan maiz hegaldatzen den



Sorbeltz Arrunta (*Apus apus*) ere.

Azken hau ez da Parkean ugaltzen baina ohikoa izaten da haran-hondoetako herrietan, eta hortik ale ugari igotzen dira Gorbeiaiko tontor altuenetaraino aire-planktonari jarraituz.

NEURRIAK: 20-22 cm. Pisua: 80-120 g.

ZATA ARRUNTA

(*Caprimulgus europaeus*)

Ixtura harrigarriko espeziea, jokaera gautarra eta dieta intsektiborua duena. Behatzen zaila da; gauean eta egunsentian hegan dauden intsektuak harrapatzen ditu. Haren kantua etengabeko gorabeherak egiten dituen urruma da eta erraz bereizten da gaueko hostsen artean. Egunean lurrean etzanda egoten da, haren lumaldi kriptikoari ondo ezkutaturik. Mota guztietako eremu irekietan aurkitzen da, argiune eta baso-ertzetatik sastrakadi (txilar-diak, era-lekuak, ...) eta landaturiko baso gazteetaraino. Espezie migratzailea izanik, abuztuan ugaltze-lurraldeak utzi eta Afrikako negu-lurraldeetara abiatzen da. Maiatzaren hasieran suma daitezke aherik goiztiarrenak.



NEURRIAK: 27 cm. Pisua: 75-100 g.

USAPAL ARRUNTA

(*Streptopelia turtur*)

Uso txiki eta liraina, sabela zuria, bularra arrosaxka eta gainaldeak gaztaina-kolorekoak dituena. Haren lumadian bereziki nabaria da kanpo-ertz zuridun buztan beltza eta bai helduek lepoaren bi alboetan dituzten orban zuri-beltzak. Heskaiak eta zuhaitz-orbanak ugari dituzten eremu irekietan eta baso-ertzetan bizi da orbeian bikoteran bat ugaltzen bide da Parkeak duen landazabal-eremu txikian. Paseetan apur bat ugariaga izaten da, batez ere udazkenekoan (Abuztua/urria).

NEURRIAK: 26-28 cm.

Pisua: 130-180 g.



PAGAUSOA (*Columba palumbus*)

Tamaina handiko usoa, hegoetan dituen orban zuri nabariengatik erraz bereizten dena; ale helduek, lepoan ere dituzte orban zuriak.

Euskal Herrian, mota gustuetako basoetan ugaltzen da, baina oso urria izaten da, edo bat ere ez dago eukalipto-landaketetan eta haziera azkarreko konifero-landaketetan. Hortaz, urri samarra da Gorbeiaiko ipar-mazeletan (Arratia eta orozko); izan ere, hauetako paisaia nagusi dira konifero landatuak. Arabako mazeletan dauden pagadi, harizti eta Pinu Gorriko basoetan aldiz, ugari samarra da. Dentsitate handienak Altubeko pagadi zabalean detektatu dira: 4,5 hegazti / 10 hektarea.

Pagausoak, oso habia landugabea eraikitzen du zuhaitz baten adarretan eta bertan bi arrautza zuri jartzen ditu. Errute gehienak apirilean eta maiatzean gertatzen dira, baina denbora-tarte hau nabariki luza daiteke, bigarren eta hirugarren errute bat ere egin baitezakete.

Badiurdi gure geografian ugaltzen diren pagausoak geldikorak direla edo bestela, gehienez ere lekualdatze laburrak egiten dituztela. Edonola, Ipar eta Erdi Europan ugaltzen diren populazio gehienak migratzaileak dira eta Iberiar Penintsularen hego-mendebaldeko arte- eta artelatz-dehe-



setan dute bere negu-lurralde garrantzitsuena. Hegazti hauek Bizkaiko Golkotik sartzen dira Iberiar penintsulan; hortaz, udazkeneko bi milioi pagauso inguruk zeharkatzen dituzte hegan euskal mendiak, sarritan Txoloma (*Columba oenas*) ale batzuekin lagundu. Ehiztariak irrika itxaroten dute sasoi hau, parada estrategikoetan jarri eta talde migratzaile handi hauen zati bat akabatzeke. Zilegi da paseko espezie hau ehizatzea Gorbeiaiko Parkearen mugen barruan, baina ehiza hori araudi bereziaren arabera paselerro batzuetara mugaturik dago.

NEURRIAK: 39-43 cm. Pisua: 450-520 g.

KUKUA (*Cuculus canorus*)

Espezie hau berezi herrikoia da, haren kantuak eta ohiturek esaera eta sinesmen ugari sortarazi baitituzte. Kukua hegazti migratzaile hutsa da; izan ere, gure latitudeetako neguetako estutasunak saihesten ditu, Afrikako hegoalderaino bidaiatuz. Martxoaren erdialdetik, haren kantu indartsuak Gorbeiaiko basoetara itzuli dela iragartzen du. Bertan zuhaizdun eremu guztietan aurki daiteke. Horren herrikoia izanik ere, haren itxura ezezaguna izaten da, baita baserritar askorentzat ere. Izan ere, ez da inola erre erraza abesten ari den bitartean behatzea, eta bestetik, duen kolore eta tamainagatik, hegaldatzen denean punta zorrotzeko hegodun Gabirai baten itxura hartzen du. Bi hegazti hauek horren antzekoak diren, antzina Kukua neguan Gabirai bihurtzen zela uste zuten.

Heldu gehienek, burua, gibelaldea eta hegoak gris kolorekoak dituzte, eta bularraren eta sabelaren azpialdea zuriak, marra mehe ilunekin. Hegazti parasittoa da, beste espezie batzuen gutxi gorabehera 6 eta 18 habitateetan arrautza bana jartzen dituen. Emeak gurasordeen espezie bereko habiak parasitatu ohi ditu, eta gai izaten da espezie horren arrautzen oso antzekoak erruteko. Kuku jaioberriak arrautza eta kume guztiak botatzen ditu habiatik, eta horrela, kumetzat hartzeko beharturik dauden gurasoek ekartzen duten



janari guztia bereganatzen du; izan ere, gurasordeek beraiek baino askoz ere gorputz handiagoa lortzen du.

Kukuaren kantua ez da entzuten uztailetik aurrera, garai honetan uzten baitituzte heltzen gure basoak. Gazteek, helduekin inolako loturarik ez dutelarik, beranduago ekiten diote migrazioari, gehienek abuztuaren bukaeran edo irailaren lehen hamabostaldian.

NEURRIAK: 32-34 cm.

Pisua: 110-130 g.

URUBIA (*Strix aluco*)

Tamaina ertaineko eta itxura potoloko hontza, buru handia eta begi beltzak dituen. Kolorea aldakorra izaten da, grisaxkatik gorrixkaraino doana.

Mota guztietako baso-eremuetan aurki daitekeen hontz geldikorra de, eta ziurrenik Euskal Herriko harrapari gautarrik ugariena. Gehienetan zuhaitzen zuloetan egiten ditu habiak, baina honelakorik aurkitzen ez badu, eraikinetan, harkaitzetan, beste hegazti batzuen habietan eta bai lurlean bertan ere ematen du aurrera kokatzea. Izan ere, Euskal Herriko atlantiar lurraldean, Urubia oso hedaturik dago konifero-landaketa zabaletan zehar, habiak jartzeko zuloak oso urriak diren arren. Ugaltzaile goiztiarra da, izan ere, haren eztei-paradak abenduan ere gerta daitezke. Gure lurraldean, bikote gehienek



martxoan egiten dute errutea, eta beraz, kume gehienak apirilean jaiotzen dira. Guztiz lumatu eta hegaz egiteko gauza izan aurretik, kumeek habia utzi eta pausagune garai batean jartzen dira, bere gurasoen zain. Askotariko dieta izaten dute: ugaztun txikiak (batez ere basasaguak eta satitsuak), intsektuak (kakalardoak eta kilkerak) eta, gutxiagotan, hegazti txikiak, anfibioak eta narrastiak.

NEURRIAK: 37-45 cm. Pisua: 330-700 g.

HONTZ ERTAINA (*Asio otus*)

Tamaina ertaineko harrapari gautarra, belarri moduko mototsak eta laranja koloreko begiak izateagatik bereizten dena.

Ehizatzeo aukera ematen dioten ingurune irekiekin txandakaturiko zuhaizdun eremuetan bizi da. Nagusiki mikrougaztunez elikatzen da, baina dieta intsektuak harrapatuz osatzen du eta noizik behinka zenbait hegazti, anfibio, narrasti eta bai saguzarren bat ere harrapatzen du. Ugaltzeko gogoko du harrapari egutarren eta korbidoen habia zaharrak erabiltzea. Araldia, otsailean hasten da eta erruteak martxorako bukatuta egon ohi dira. Apirilaren bukaerarako, kume gehienek 84-7) habia utzi dute dagoeneko; izan ere, 23 edo 24 baino ez dute behar bere garapena burutzeko.

Hegazti hauek geldikorak izaten dira nagusiki, baina zenbait gazte hamarka kilometroz urrun daitezke jaio diren lurraldeetatik.

Haien jokaera zuhur eta uzkurra dela eta, ez dakigu zenbatekoa den Euskal Herriko populazioa. Kumaldian detektatu da inoiz Altubeko basoan, baina ez dakigu zenbat bikote ugaltzen diren Gorbeiaiko Parkean. Hontz Ertainak nolabaiteko antzekotasuna du Hontz Handiaren (*Bubo bubo*), azken honen pisua hamar bat aldiz



handiagoa bada ere. Hontz Handia ez da Gorbeian ugaltzen, baina inoiz aurki daiteke Parkean, azken urteetan zenbait ale askatu baitira.

NEURRIAK: 35-37 cm. Pisua: 220-300 g.

HONTZ ZURIA (*Tyto alba*)

Europako hegaztien artean berezienetakoa da itxuraz; erraz bereizten da gainerako harrapari gautarretatik, haren lumadiaren kolore argiagatik. Burua eta gibelaldea arre urrekara du, grisaz zipriztindurik, eta azpialdeak aldiz, kolore aldakorrekoak izaten dira, oso zuritik arre urrekararaino. Nabarmena da begien kolore beltza, eta, batez ere, aurpegian duen bihotz eiteko disko zuria.

Zuhaitzen bat duen eremu irekietan ohikoa den espeziea, sarritan gizakiek darabiltzaten eremuei lotuta dagoena. Zuhaitzen zuloetan, harkaitzetan, itsas labarretan eta utzitako harrobietan ugaltzen da, eta bai gaur egun erabiltzen ez diren mota guztietako eraikinetan ere, herrietako eliza eta baselizetan bereziki ugariak izanik. Parkean ohikoa izaten da herrigunetatik hurbil (Undurruga, Etxaguen, Markina, ...) baina ez da azaltzen harkaitzetan. Urte-sasoi guztietan gertaturiko erruteen berri izan badugu ere, kasu gehienetan martxoaren bukaeratik ekainera bitartean erruten dute. Harrapakin-eskuragarritasunaren baldintza jakin batzuetan, zenbait bikotek bigarren errutea egin dezakete udaren bukaeran.

Gure latitudeetan Hontz Zuriaren elikagai nagusia ugaztun txikiak izaten dira (harrapakinen %70-100), eta haien artean bereziki aipagarriak dira basasaguak eta satitsuak. Gutxiago bada ere, kakalardoak, kilerrak eta tamaina txikiko hegaztiak ere harrapatzen dituzte. Zalantzarik gabe nekazaritzarako onuragarriak badira ere, harrapari gautar eder honek jazarpena pairatu sarritan baserri-munduan; izan ere, mamu itxura dute eta gauean egiten dituzten garrasi eta mamar zirraragarriek herriaren irudimena elikatu dute, hortaz, hauen agerpena iragarpen ilunekin lotzen da. Arriskuan dagoen espezieztat ez daukagun arren, pestiziden erabilerak, ezku-



tuko ehizak eta auto-istripuek hilkortasun handia eragiten dute espezie honen populazioetan.
NEURRIAK: 35-39 cm. Pisua: 290-260 g.

MOZOLOA (*Athene noctua*)

Harrapari gautar txiki eta potoloa, hori koloreko begiengatik eta ohitura erdi-gautarrengatik bereizten dena. Askotariko habitatean bizi daiteke, baina bereziki nahiago ditu eremu irekiak. Euskal herrian aurki daiteke bai Ebroko



Haran eta lautadako laborantza-eremuetan, bai kostaldeko landazabaletan ere. Urria izaten da mendi-eremuetan eta baso-habitatetan. Parkean ugaltzen ote den ez badakigu ere, baliteke landazabaleko eremuetan ugaltzea.
NEURRIAK: 22 cm. Pisua: 140-200 g.

SAI ARREA (*Gyps fulvus*)

Sai Arreak 2,35-280 metroko tamaina du eta, Ugatzarekin eta Basoiloarekin batera, gure latitudeetako hegazti lehortar handiena da. hegan ari denean, erraz bereizten da bere lehenengo arraun-lumen muturrak hedaturik dituzten hegozabal eta zuzenegatik, bere buztan labur eta karratuegatik, eta atzera eramaten duen buru txikiagatik. Askotan taldetan ikus daitezke igotze- edo planeatze-hegaldiak eginez, ia hegoak mugitu gabe, larrediak eta eremu irekiak animalia hilen bila miatuz. Haien ikusmen zorrotzari esker, gorpuk aurkitzen dituzte; izan ere, ardi baten gorputza ikus dezakete kilometro batzuetako distantzietatik. Behin sarraskia ikusita, zirkulu zentroidetatik egiten dituzte haren inguruan, gero eta itxiagoak, elikagaiaren kokagunea urrunago dauden kideei erakustearren. Ugaltze-sasoia, aireko



gorteiatzeekin hasten da, batez ere abenduan eta urtarri-lean gertatzen direnak lehen erruteak urtarri-lean egiten dituzte eta arrautza bakarraren berotzeak ia bi hilabete irauten du. Eklosioaren ondoren, kumea habian gertatzen da lau hilabete inguru, hots, erabat garatzeko behar duen denbora-tartean. Bizitzaren hasierako hiru urteetan, gibelaldeko lumadia gurasoek baino ilunagoa du, eta lepoaren oinarriaren inguruko lumak arreak izaten dira; ale helduak aldiz, luma horiek zuriak izateagatik bereizten dira.

Parkean ugaltzen ez bada ere, ohikoak izaten dira, hainbat ale ikus baitaitezke egunero erronda egiten edo Itxina eta Aldamineko harkaitzetan pausaturik. Ugaltze-koloniarik hurbilenak Urkiolako Natur Parkean eta Delilka eta Tertangako Salvada-ko mendialdea) malkarretan daude. Iberiar Penintsulako beste lurralde batzuetako populazioek bezala, Euskal Autonomi Erkidegoko populazioak hazkunde nabaria izan du azken bi hamarkadetan eta gaur egun 600 bikote ugaltzailez osaturik dago. Batez ere ale gazteei dagozkien lekualdatze garrantzitsuen berri izan badugu ere, gehienak ez dira gehiegi urruntzen ugaltze-koloniatik.
NEURRIAK: luzera: 100-110 cm. Pisua: 6,5-8,2 kg.



UGATZA (*Gypaetus barbatus*)

XIX. mendearen bukaeran iberiar mendialde guztietan zehar sakabanaturik bazegoen ere, gaur egun sai honek suntsitzeko arriskua du Europako banaketa-eremu osoan. Izan ere, Pirinioetan bizi den populazioa Europako garrantzitsuen da. Azken bi hamarkadetan Pirinioetako populazio honen leheneratze astotsua gertatu da eta horrek eragiten du noizean behin heldugabeko ale batzuk eta heldu batzuk Euskal herriko mendi-lerroetan ikusi ahal ixtea. Gorbeian hirutan baino aipatu ez badira ere, baliteke etorkizunean maizago agertzea, Pirinioetako populazioaren hazkundeak badirau behintzat.
NEURRIAK: luzera: 108-145 cm. Pisua: 5-7 kg.



SAI ZURIA (*Neophron percnopterus*)

Tamaina txikiko sai honek, migratzeko joera nabaria du. Lehen sai zuriak martxoaren hasieran heltzen dira euskal mendietara, Afrika tropikaleko negu-lurraldeak utzi eta hiru maila kilometro inguruko distantzia egin ondoren. hegan ari direnean oso itxura bereizgarria dute: gorputzeko kolorea guztiz zuria, arraun-lumak erabat beltzak, punta zorrotzeko hegoak, eta ziri itxurako buztana. Ale gazteak erabat arreak dira eta ugatz gazteen antzeko itxura dute, nabari txikiagoak badira ere. Kolore arrea, argituz doa bosgarren urtera arte, eta orduan lortzen urte behin-betiko lumadia. Sai Zuriak. Habia, hainbat urtetan erabiltzen dute eta harrapatzaleei iristezin gertatzen zaien kobazulo edo zartadura batean kokaturik egon da, eta posible denean, hegoalderantz zuzenduta, haize hotz eta hezeen erasotik babestearren. Ohiko errutea bi arrautzakoa izaten da, baina zenbaitetan arrautza bakarra erruten dute eta inoiz hiru ere eruan ditzakete. Kumeak maiatzean jaiotzen dira eta hiru hilabete inguru gelditzen dira habian. Edonola, ohikoena izaten da kume bakarrik bizirik irautea. Abuztuaren bukaeran ugaltze-lurraldea uzten hasten dira eta irailaren erdialdeko oso ezohikoa da gure mendietan alerik aurkitzea. Sai Zuri bikote batek behintzat ugaltzen da Parkean, eta Euskal Autonomi Erkidegoko populazio ugaltzailea 50-55 bikote



ingurukoa dela estimatu da. Arriskuan dauden Espezieen Euskadiko Zerrendak Kalteberatzak hartu du espezie hau. **NEURRIAK:** luzera: 58-70 cm. Pisua: 1,6-2,4 kg.

ARRANO SUGEZALEA (*Circus gallicus*)

Tamaina handi samarreko arranoa, hegan ari denean erraz bereizten dena; izan ere, ale askok duten eztarriaren eta bularraren aurrealdearen kolore arre iluna alde batera utzirik, zuria da nagusi azpialdeko lumadi osoan. Haren dieta nagusiki narrastiez osaturik dago, batez ere, ofidioez. Horrek nabariki baldintzatzen die banaketa: narrastiak bere jarduerako eguzki-izpiek eskaintzen duten beroa behar duten ornodunak dira eta beraz, eremu irekiak dira hauen-tzako habitatik egokiena, eta ondorioz, bai arrano sugezaleek gogokoen dituzten lurraldeak ere. Dietak baldintzatzen ditu europar populazioen migrazio-ohiturak ere: neguko tenperatura baxuek narrastien jarduera murriztarazten du eta ondorioz, bai latitude hauetako arranoen elikagaien eskuragarritasuna ere. Hori dela eta, udazkenean, iberiar sugezale



gehienak hegoalderantz abiatzen dira, Gibraltarreko itsasertzea eta Sahara hegoan zeharkatu, eta Senegaleetik Etiopiaraino doan afrikar zerrenda tropikaletan ezartzen dira. Martxoaren bukaerarako, zenbait ale itzuli dira euskal mendietako lurraldeetara, eta apirilaren erdialderako, bikote askok eraikia dute jadanik habia, beti ere zuhaitz baten adaburuetan kokaturik. Kume bakarrik edukitzen dute eta bere bizitzako hirugarren hilabetearen inguruan hasten da gurasoengandik banatzen. Hasierako denbortarte horretan gurasoek elikatzen dute egunero bat edo bi suge emanez. Harrapakinak lortzeko, helduak etengabe hegaldatzen dira ehiza-lurraldearen gainean, eta maiz 16-60 metroko altueran orekan geratzen dira era bereizgarrian, eta lurra miatzen dute, sugeren bat ikusi arte. Euskal Autonomi Erkidegoko Sugezaleen populazioa 60-65 bikotekoa dela estimatu da, eta Gorbeiakoa lau bikotez osaturik dago. **NEURRIAK:** luzera: 65-70 cm. Pisua: 1,5-2,4 kg.



ARRANO BELTZA (*Aquila chrysaetos*)

Tamaina handiko harraparia, bi metro baino gehiago izan ditzakeena. Oso hegaldi dotoreak egiten ditu, hegoek "V" ireki bat eratzen duten bitartean igotze eta planeatzeko ugari eginez. Ale helduen lumadia arre lehoikora da eta burua eta garondoa urre kolorekoak. Heldu gabeko aleak ilunagoak izaten dira eta orban zuri bereizgarriak izaten dituzte buztanaren barnealdean eta hegoen azpialdean. Orban hauek desagertu doaz pixkanaka, lau urteren



buruan helduen lumadia lortzen duten arte. Arrano Beltzaren dieta harrapakin mota ugari osaturik dago, gehienak lurlean harrapatzen dituen ugaztunak eta tamaina ertaineko hegaztiak badira ere. Sarraskiaz ere elikatzen da, batez ere neguan. Arriskuan dauden Espezieen Euskadiko Zerrendak espezie Kalteberatzat hartu du. zeren eta Euskal Autonomi Erkidegoko populazioa dozena bat bikote ugaltzailatik beherakoa baita. Ez da ugaltzen Gorbeian baina edonola,zenbaitetan ale helduak eta heldu gabekak ikus daitezke, batez ere udazkenean eta neguan. **NEURRIAK:** luzera: 79-87 cm. Pisua: 2,9-6,6 kg.

ARRANO TXIKIA (*Hieraeetus pennatus*)

Tamaina txikiko eta gibelalde arreko arranoa, azpialdeko lumadian bi kolorazio izan ditzakeena. Ugariak dira kolorazio argiko aleak. Hauek, gorputza eta hegaleko estal-lumak zuriak izaten dituzte, kolore ilunekoak diren luma arraunlarietatik nabariki bereizita. Fase iluneko aleetan aldiz, ia ez da kontrasterik nabaritzen, bai gorputza, bai hegoen azpialdea ilunak baitituzte. Azken hauek erraz nahas daitezke Zapelatz Arruntarekin edo Zapelatz Liztorjalearekin; izan ere, antzeko tamaina dute, baina azkenekoek hegoak estua-goak dituzte eta buztana luzeagoa. Arrano Txikia baso-harraparia da, baina zuhaitz-eremu zabalak saihesten ditu eta nahiago izaten ditu soilgune, zakarki eta larriediekin tartekaturiko baso-eremuak. Mota askotako animalia txikiak harrapatzen ditu, intsektuetatik tamaina txikiko ugaztunetara (satorrak, urt-xintxak); edonola, haren harrapakinik ohikoenak, tamaina txikiko hegaztiak dira. Iberiar ale gehienek Afrika tropikalean ematen dute negua, Gineako Golkoaren inguruko herrialdeetan alegia. Negua igaro ondoren, ugaltze-lurraldeetara itzultzen dira, eta apirilaren bukaerarako bere eremuak bete dituzte Euskal



Autonomi Erkidegoko 55-65 bikoteak. Oso espezie urria da Euskal Herriko atlantiar eskualdean eta Gorbeiaiko Parkean dagoen populazio ugaltzaileak, Altubeko basoan aurkitu den bikote bakarria duela dirudi. Udazkeneko migrazioan zehar (abuztua/iraila) gehiagotan ikusten dira, zeren Akitaniar ugaltzen den populazio txikiak Euskal Herria zeharkatzen baitu bere migrazioan. **NEURRIAK:** luzera: 45-53 cm. Pisua: 0,7-1,2 kg.



ZAPELATZ LIZTORJALEA

(*Peris apivorus*)

Zapelatz Arruntaren oso antzekoa da, baina lirainagoa itxuraz, hegoak eta buztana laburragoak baititu eta burua apur bat irtenagoa. Hegan ari denean erraz bereiz daiteke Zapelatz Arruntetik, zeren planeatzen edo igotzen denean hegoak alde edo apur bat eroriak jartzen baititu.

Ohiko baso-espezia da Euskal Autonomi Erkidegoan nagusi harizti eta pagadietan aurkitzen dena. Izan ere, espezie honen populazioa ehun bikote ugaltzailetatik hurbil dago. Gorbeiak gordetzen duen populazioa 12-15 bikote habiagile ingurukoa dela estimatu da, gehienak baso hostoerorkorretan zehar banaturik.

Izen zientifikoak (latinezko apem hitzetik), bai eta gaztelaniazko izenak ere, erleetan oinarrituriko balizko dieta bati



erreferentzia egiten badio ere, egiatan liztorren arrautzez, larbez eta helduez elikatzen da, euskarazko izenak adierazten duen bezala. Liztorren habiei erasotzen die zuhaitzetan edo lurpetik bere atzaparrez indusiz aterata. Dieta osatzeko beste intsektu batzuk ere jan ditzake (erleak, termitak, matxinsaltoak,...) eta ornogabe txikiak. Hau ere Sahara zeharkatzen duen espezie migratzailea da, negua Afrika tropikalean ematen duena; eta zenbait ale Ekuatoreko lurralderaino heltzen dira. Lehen aleak martxoaren bukaera inguruan ikusten badira ere, gehienak apirilaren bukaeran eta maiatzean zehar betetzen dituzte ugaltze-lurraldeak. Gainerako baso-harrapariak bezala, Liztorjaleek habia zuhaitz baten gainean eraikitzen dute eta bertan erruten maiatzean. Errutea 1-3 arrautzakoa izaten da eta hilabeteen berotzen dute. Kumeak erabat independenteak izaten dira hiru hilabeteren buruan, eta orduan prest egon beharko dute Afrikarako lurraldeetarako lehen migrazio-bidari ekiteko.

NEURRIAK: luzera: 52-60 cm. Pisua: 0,4-1 kg.



MIRU BELTZA

(*Milvus migrans*)

Kolore iluneko harraparia, bere hegaldi segailarengatik eta bere buztan luze eta urkila itxurakoagatik erraz identifikatzen dena.

Espezie omniborua da eta bere dietan mota guztietako ornodunak eta ornogabeak sartzen ditu, eta bai sarraskia eta zabortegien hondakinak ere.

Haren izen zientifikoak iradokitzen duen bezala, Miru Beltza espezie bidari hutsa da. Iberiar populazioek Maroko eta Gineako Golkoaren artean ematen dute negua. Martxoaren erdialdean, bertako miruak Euskal Herria heltzen dira, eta haran-hondoetan zehar banatzen dira, batez ere urtegietatik



eta ur-ibilgu garrantzitsuetatik hurbil. Hori dela eta, harrapari hau ez da oso arrunta Gorbeiaiko Parkean; edonola, ugari samarra da inguruko lurraldeetan, bereziki, arabar urtegien inguruan. Hala eta guztiz ere, 12-15 bikoteak habiak edo bere lurraldearen zati bat Parkean dutela dirudi. Irailaren hasieran ugaltze-lurraldeak uzten badituzte ere, Parkean zenbait ale ikus daitezke azaroaren hasierara arte, Pirinioen iparraldean ugaltzen diren hegaztien pasea dela eta.

NEURRIAK: luzera: 49-56 cm. Pisua: 0,6-1 kg.

MIRU GORRIA

(*Mivus milvus*)

Aurretik deskribaturiko espeziearen oso antzekoa, baina buztanak urkila itxura handiagoa du eta lumadia gorrixka da. Lepoko eta buruko lumak kolore argiagokoak ditu, eta orban zuri bereizgarria du hegoan barnealdean.

Ugaltze-sasoian, eremu irekietatik hurbil dauden basoetan bizi da, eremu horietan aurkitzen baititu garai horretan maizenik bere harrapakinak diren karraskariak, narrastiak eta zenbait hegazti eta intsektu. Neguan aldiz, maizago aurkitzen da eremu irekietan, bereziki landuriko lurretan eta zabortegien inguruetan, batez ere mikrougaltzunez eta

sarraskiaz elikatzen baita. urte-sasoian honetan Miru Gorriak hegan ibiltzen dira sarritan errepideen gainean autoek harrapatzen dituzten animaliak jateko. Arriskuan dauden Espezieen Euskadiko Zerrendak espezie



Kalteberatzat hartu du, eta izan ere, Euskal Autonomi Erkidegoan ugaltzen diren bikoteak berrogei baino gutxiago direla estimatu da; horietako gehienak Arabako lurraldean aurkitu dira. Gorbeiaiko Parkean espezie urria da; edonola, apur bat ugariagoa izaten da neguan, orduan zenbait ale nora ezean ibiltzen baitira haran-hondoetan landuriko lurretan zehar. Inoiz ikusi izan da ugaltze-sasoian, baina ez daki gu bikoteren batek habia Parkean ote duen. Migrazio-garaian apur bat ugariagoa izaten da, bai udazkeneko pasean (urria/azaroa), bai udaberrikoan (otsaila/maiatza).

NEURRIAK: luzera: 59-65 cm. Pisua: 780-1-100 kg.

AZTOREA

(*Acipiter gentilis*)

Hegazti mardula, hego labur eta zabalekoa eta buztan luzekoa. Helduek gibelaldea marroi grisaxka dute eta bularra eta behealdeak kolore argiak eta lerro horizontal ugariak. Gazteen gibelaldea arreagoa da, eta behealdeak marrik dituzte baina luzetara. Emeak oso mardulak dira eta arrak baino nabariki handiagoak. Arrak tamaina handienera Gabiraien emeak baino apur bat handiagoak dira. Antzinatean oso erabilia izan da falkoneriarako. Izar ere, hegazti honek jarduera zinegetiko honetarako duen "noblezia" (gentilis) kontuan hartu zuen Linneo naturalista ospetsuak, 1758 urtean espezieari latinezko izena esleitu zionean. Harrapari zaputza da eta behatzeko zaila, araldian izan ezik, aro honetan



basotik gora egiten du igotze-hegaldian, hegoak zabalik eta buztana haizemailea bailitzen paraturik. Zuhaitzak dituzten edozein motatako eremuetan bizi da, baina nahiago izaten ditu gizakien eraginetik urrun dauden baso helduak. Tamaina ertaineko eta txikiko hegaztiez elikatzen da nagusi, baina ugaltzunez ere harrapa ditzake, esate baterako untxiak eta urtxintzak.

Euskal Autonomi Erkidegoko populazioa gutxi gorabehera 80 bikote ugaltzailez osaturik bide dago, eta horietatik 9-13 bikoteak Gorbeiaiko Parkean dute bere lurraldea, batez ere, arabar isurialdeko pagadi eta hariztietan. Iberiar aztoare gehienak bezala, hegazti geldikorrek dira, baina, edonola, zenbaitetan hamarka kilometro lekualdatzeak egiten dituzte, batez ere ale gazteek.

NEURRIAK: luzera: 48-61 cm. Pisua: 0,6-1,2 kg.

GABIRAIA (*Accipiter nisus*)

Isturaz eta ohiturez aurretik deskribatu den harri-
pariarekiko horren antzekoa da, ezen tamaina txiki-
ko aztoze modura deskriba baitaiteke. Espezie hone-
tan ere, nabaria da sexuen arteko tamaina-aldea.
Emea, askoz ere handiagoa da eta bere bikotekide-
aren pisuaren bikoitza eduki dezake; izan ere, gabi-
rai arrak gure geografian aurki daitezkeen harripari-
rik txikienak direla esan daiteke. Habiak ondo gara-



turiko edozein motatako eskualde basotsuetan jartzen dituz-
te, baina ehizarako, beharrezkoa dute basoetatik hurbil
argiuneak edo laborantzak egotea.
Finkatu gabe dugu Euskal Autonomia Erkidegoko populazio
habiagilea baina badirudi 320 bikote inguruk osatzen dute-
la. Hortaz, ez dakigu zehazki Gorbeiaiko Parkean bizi den
populazioa zenbatekoa den, baina edonola, 12 bikote ugalt-
zaileko behe-mugaren eta zenbait bikote ugaltzaileko goi-
mugaren artean dagoela estimatu da.
Eskualde honetako hegaztiak geldikorrak dira oro har, baina
iraila eta azaroa bitartean iparraldeko eta erdiko Europako
gabiraia helden dira, eta horietako batzuk lurralde honetan
igaro dezakete negua.

NEURRIAK: luzera: 30-40 cm. Pisua: 120-340 kg.

ZAPELATZ ARRUNTA (*Buteo buteo*)

Oso kolorazio aldakorra izaten du, goialdeak
arre ilunak izaten dira, eta behealdeak aldiz,
hainbat koloretakoak, oso ilunetik oso argira doa-
zenak. hegan ari direnean, hegazti ilunetan
bereizgarriak dira hegoen behealdean apaintzen
duten orban argiak, buztana eta hego zabal eta
biribiltuak, eta lepo labur samarra.

Mota guztietako basoetan aurki daiteke, baina
ugariagoa izaten da arboladiak eta eremu irekiak
tartekaturik dituzten lurraldeetan.

Mota askotako animaliez elikatzen da, tamaina



ertaineko ugaztunetatik intsektuetaraino. Neguan, harriparakinik
ohikoenak dira mikrougaztunak (arratoiak, saguak eta sati-
tsuak), eta udan aldiz, batez ere kilkerak eta matxinsaltoak
jaten espezializaturik dago.

Belatz Gorriarekin batera, harripari negutarrik hedatuen eta
ugariena da Euskal Herriko geografian; izan ere, bertako
populazioa 550-600 bikote ugaltzaile ingurukoa dela estimatu
da. Bikote horietatik 60-85 inguru bizibide dira Gorbeiaiko
Parkean. Hegazti geldikor gisa jokatzeko bide duten zapelatz
aruntez osaturiko bertako populazio honekin elkartzen bide
dira neguan iparraldeko lurraldeetatik datozen zenbait ale
migratzaile.

NEURRIAK: luzera: 51-60 cm. Pisua: 0,6-1,4 kg.



MIROTZ ZURIA (*Circus cyaneus*)

Tamaina ertaineko harriparia, gorputz liraine-
koa eta hego eta buztan luzekoa. Arra gris
errausketa da goialdean, beltzak diren lehenengo
arraun-lumak eta zuria den ipurtxuntxurra izan
ezik. Azpialdean, nabarmena da lumadiaren kolo-
re zurixka, hegoen muturretako beltza izan ezik.
Emeek ez dute kolore grisik, eta horietan nagusi
dira kolore arrexkak, ipurtxuntxuraren kolore zuri
deigarria izanik.

Ehizarako zein ugaltzeko eremu irekiak behar
dituen espeziea da. Ehizatzen duenean, hegaldi
baxua egiten du: hego-astindu gutxi batzuen
bidez abiada hartu eta planeatze ugariarekin txan-
dakutzen ditu, ugaztun txiki, narrasti edo txoriren bat ikusi



arte. Orduan bat-bateko saltoa eginez harriparatzen du.
Espezie honen iberiar populazioa mila bikote ingurukoa dela
estimatu da eta horietatik %20 inguru (190-196) bizi dira
Euskal Autonomi Erkidegoko lurraldean. Gorbeiaiko Parkean
Miroitz Zuria, landaturiko konifero-baso gazteetan, txilardie-
tan, otadietan eta endekaturiko hariztietan ugaltzen da.
Populazioa 8-12 bikote ugaltzaile ingurukoa da.
Eztei-hegaldiak apirilaren hasieran hasten dira, eta hilabete
honen bukaerarako bikote gehienek egin dute errutea. Hiru
eta sei arrautza bitartean erruten dituzte lurrian eraikitzen
duten habian kokatzen dituzte. Abuztuaren bukaera alde-
an, bai Parkean jaiotako aleek, bai miroitz zuri heldu gehie-
nek, ugaltze-eremuak utzi eta hegoalderakoko iberiar lurral-
deetara jotzen dute negua igarotzera. Mendi-sastrakadien
erretze eta luberritzea da mehatxu nagusietako bat miroitz-
populazio garrantzitsu honen kontserbaziorako.

NEURRIAK: luzera: 43-51 cm. Pisua: 300-550 kg.

ZUHAITZ-BELATZA (*Falco subbuteo*)

Buztan laburreko eta hego luze eta punta
zorrotzeko harripari txikia. hegan ari denean,
hegoak atzerantz apur bat okerturik mantentzen
dituelarik, haren siluetak sorbeltzena gogoraraz-
ten ditu oso azkar eta trebea da hegan egiteko
orduan, eta beraz, mota guztietako harripari txiki
hegodunak ehizatze gaia da, saguzarretatik,
inurrietaraino.

Ugaltze-sasoian, kumeak hegaztiez (enarak, sor-
beltzak, hegaxabak, ...) batez ere elikatzen ditu;
edonola, intsektu ugari ere harriparatzen ditu, esate
baterako, burrunziak, kakalardoak eta inurriak.
Zuhaitz-belatzek ehizatze gaia behar dituzten eremu
irekietatik hurbil dauden baso eta zuhaiztietan egi-
ten dituzte habiak. Kumaldirako, korbidoek edo
beste harripari batzuek utzitako habiak erabiltzen dituzte.
Erruteak maiatzaren bukaeran egiten dituzte eta bizpahiru
arrautzak izan ohi dira. Arrautzak arre horixkak eta orban
arre gorrixka txikiez beterikoak izaten dira. 28 egun igaro
ondoren jaiotzen dira kumeak, eta hilabetez geldituko dira
habian erabat lumaturik eta bere lehen hegaldiak egiteko
prest egon arte.

Zuhaitz-belatzak erabat migratzaileak dira, eta abuztuaren
bukaera aldean ugaltze-lurraldeak utzi eta hegoalderantz



jotzen dute, Gibraltarreko itsasarte zeharkatu eta negua
Afrika tran-saharianrean igarotzeko. Apirilaren bukaera alde-
an, espezie honetako lehen bikoteak berriro ere ezartzen
dira Euskal Autonomi Erkidegoko lurraldean; edonola, ez
dakigu zenbatekoa den bertako populazio ugaltzailea. Behin
baino gehiagotan azaldu dira udan Gorbeiaiko Parkean,
baina ez da ezaguna ezta babesturiko eremu horrek gorde-
tzen duen populazio ugaltzailea, agian 2-4 bikote baino ez
duena.

NEURRIAK: luzera: 28-36 cm. Pisua: 155-340 kg.

BELATZ HANDIA

(*Falco peregrinus*)

Gorputzera marduleko belatza, hegan ari denean itxura trinkoa azaltzen duena. Laukizuzen itxurako edo punta txikidun buztana eta oinarri zabaleko hego muturzorrotzak izaten ditu, maiz triangelu itxura ere dutenak. Helduek gris arbelkarak izaten dituzte hegoen gibelaldea eta bizkarra, eta zurixkak zeharkako zirrinta estuekin, bularra eta hegoen azpialdea. Haien fisionomian nabariak dira, halaber, aurpegiaren bi aldeetan dituzten bibote moduko orban beltzak, eta aberastun hori batez inguratutako begi oso ilunak. Emeak arrak baino hamar zentimetro luzeagoak izan daitezke. Ale gazteek gibelalde arrea izaten dute, eta azpialdeak aldiz, okrekarak dira kolore arreko marra bertikalekin.

Belatz Handia ia hegaztiez bakarrik elikatzen da, goialdeetan korbidoak, usoa eta txori txikiak izanik harrapakinik ohikoena. Ehizarako maizenik erabiltzen duen teknika izaten da balizko harrapakinari oso goitik behatu eta ondoren, 200 km/h-tik gorako abiaduran ia bertikalki amiltzea. Ehizarako duen gaitasun aparta dela eta, belatz hau antzinatik hartu izan da falkoneriarako espezie egokienetakotzat. Intsektu-hilgarri organokloratuak erabilerak murrizte handia eragin zuen europar populazioetan hirurogeiko hamarkadaren erdialdean gaur egun leheneratze prozesuan gaudela dirudi, baina hala ere, oraindik ere badiraute isileko ehizak



eta habien lapurketak arrautza-bildumetarako edo lege kanpoko falkoneriarako. Badirudi azken hamarkadetan Euskal Autonomi Erkidegoko populazioa leheneratze-prozesuan dagoela, ziurrenik ehizak eragindako heriotzen murrizteagatik. Gaur egun 70 bat-bikote bizi dira gure geografiako labar eta harkaitzetan. Haien artean sartzen dira urigoitiko horma arroksatu iriste-zinetan eta agian bai Aldamien ere bere kumeak aurrera ateratzen dituzten bikote biak. Neguan iparraldetik datozen zenbait bisitari hartzen baditugu ere, gure mendietan bizi diren belatz handiak, geldikorrak dira nagusiki eta bere ugaltze-eremuetatik hurbil egoten dira urte osoan.

NEURRIAK: luzera: 40-51 cm. Pisua: 0,6-1 kg.

BELATZ GORRIA

(*Falco tinnunculus*)

Gorputzera segaileko belatz txikia, hego eta buztan luzeak dituena. Kolore-dimorfismo sexual nabaria azaltzen dute. Arrek gris urdinxka dute buruaren goialdea, garondoa, ipurtxuntxurra eta buztanaren zati handia, zeina zuriz azpilduriko zerrenda beltzean bukatzen den. Gainaldeak gaztaina-kolorekoak dira eta orban beltz txikiez zipristindurik daude. Azpialdeak kolore argikoak dituzte ildo eta orban ilunekin. Emeen eta gazteen lumadia antzeko samarra da: burua, azpialdeak eta buztana gaztaina-kolorekoak dituzte, buztanak marra beltzak izanik.

Haren ehiza-teknikarik ohikoen eta bereizgarriena izaten da lekualdaketa laburrak egin eta jarraian altuera ertainetan (10-30 m) maiz orekan geratzea gorputza oso bertikal eta



buztana haizemaile modura irekita utzirik. Eremu irekietan ehizatzen dituen harrapakin txikiez elikatzen da, eta beraz oso ohikoa izaten lan-zabalak, larrediak eta soro landuak dituzten eremuetan, eta ez horren ugaria baso-inguruneetan. Udan harrapakinik garrantzitsuenak dira intsektuak (kilkerak, matxinsaltoak eta



kakalardoak) eta sugandilak eta neguan aldiz, mikrougaztunak (saguak eta lursaguak). Habiak itsas labarretan, malkarretan, utzitako harrobietan eta hirietako eraikinetan egiten dituzte, baina zenbaitetan, korbidoek zuhaitzetan utzitako habia zaharrak ere erabil ditzakete.

Nahiko harrapari arrunta da gure geografian; izan ere, 500 bikote inguru ugaltzen bide dira bertan, Gorbeiaiko Parkean 10-14 bikoteak dituzte habiak, batez ere eremu arroksuetan banaturik.

Gustukoen dituzten ehiza-eremuak dira landazabalak eta alde ertain eta garaietako txilardi eta larrediak. Gazteak, bere lehen bi urteetan hamarka kilometron zehar sakabana badaitezke ere, belatz gorriek hegazti geldikor gisa jokatzeko dute oro har.

NEURRIAK: luzera: 30-37 cm. Pisua: 135-270 kg.

TXILINPORTA TXIKIA

(*Tachybaptus ruficollis*)

Tamaina txikiko eta kolore arreko espezie urtarra. Eztei-lumadia duenean, masailak eta eztarria gaztaina kolorekoak ditu, eta orban zuri bereizgarria azaltzen du mokoaren oinarrian. Lautar landaretza eta ur askedun eremuak dituzten hezegune geldoetan bizi da. 0,2 bat hektareako urmael txiki bat nahikoa izan ohi da bertan txilinporta bikote bat ezartzeko. Arrain txikiez, krustazeoez moluskuez eta ur-intsektuez elikatzen da. Ur tar landaretzaren artean eraikitzen du habia, hain zuzen ere ur-mailaren gainaldean. Apiriletik aurrera 2 eta 7 arrautza zirixka bitartean erruten ditu, eta hogeigunetan berotzen ditu. Espezie hau Bakantzat du Arriskuan dauden Espezieen Euskadiko Zerrendak, 60-70 bikotetatik beherako populazioa dagoela kalkulatu baita. Eremu hau menditsua den arren. Parkeak dozena bat bikote inguru



dituela estimatu da. Horiek guztiak Altubeko urmaeletan eta Saldropoko antzinako zohikaztegiaren aurkitu dira.

NEURRIAK: 25-30 cm. Pisua: 140-230 g.

LERTXUN HAUSKARA

(*Ardea cinerea*)

Gure geografiako lertxunik arruntena. Haren lumadian nagusi dira hegaleen eta gibelaldearen kolore grisa eta lepoaren eta azpialdeen kolore zuria. Espezie honetako populazioek hazkunde nabaria izan dute Europako banaketa-eremu osoan. Parkean ugaltzen ez badira ere, maiz aurkitzen dira bertako ibaietan eta hezegune txikietan urte-saso gehienetan. Edonola, apur bat ugariagoak dira migrazio-paseetan: udaberriko pasea, otsaila eta maiatza bitartean gertatzen da, eta ugariena den udazkenekoa, uztailearen bukaeratik urriaren erdira arte. Parkean negua igarotzen duten aleen kopurua 10-20 ingurukoa izan da azken urteetan, Baias, Zubialde, Altube eta Oiardo ibaietan, Saldropoko hezegunean, eta Altubeko urmalean eta El Troncón-eko aintziran banatuta.



NEURRIAK: 90-98 cm. Pisua: 1,6-2 Kg.

ANTZARA HANKAGORRIZTA

(*Anser anser*)

Hegazti mardula, itxura pisutsukoa eta oro har kolore grisaxkakoa. Hegan ari denean, kolore gris argi bereizgarria ikus dakioko hegoen aurre-ertzean.

Gorbeian paseetan bakarrik ikusten da, talde zaratatsuek Eskandinabiako eta Erdi Europako populazioen migrazio-korridorearen erdian dauden euskal mendiak zeharkatzen dituztenean. Talde batzuk Parkearen mugatik hurbil dagoen Urrunagako (Ollerias) urtegiaren atzealdean gelditzen dira. Neguko talde gehienak, urrian eta azaroan azaltzen dira, eta urriagoa izan ohi den udaberriko pasea aldiz, otsailean eta martxoan gertatzen da.

NEURRIAK: 75-90 cm. Pisua: 3-4 g.



AMIAMOKO ZURIA

(*Ciconia ciconia*)

Hegoen punta eta atzeko ertza izan ezik lumadia nagusiki zuria du hegazti ezagun honek. Espezie migratzailea da, negu-eremuak Senegaletik Chad-eraino doan zerrendan dituen. Edonola, azken hamarkadetan murriztu egin da bidaiatzeko duen joera eta ale askok iberiar Penintsulan igarotzen dute negua. Hirurogeigarreneko hamarkadan, iberiar populazioek gainbehera nabaria pairatu zuten eta haien kontserbazioa arriskuan zegoela pentsa zitekeen. Zorionez, joera demografiko hori aldatu egin zen mendearen bukaeran, eta espezie honen populazioek garairik onetan zuten tamaina lortzeko zorian daude. Arriskuan dauden Espezieen Euskadiko Zerrendak espezie Bakantzak hartu du, eta izan ere, 1998 urtean Euskal Autonomi Erkidegoan habia zuen populazioa 14 biko te ugaltzailez osaturik zegoen. Espezie urri samarra da Parkean, baina zenbaitetan ale



bakartiren bat ikus daiteke bertako hezegune bakanetan. Edonola, bikote batek habia egin du Legutioko elizaren kanpandorrean, Gorbeiatik hurbil, beraz. **NEURRIAK:** 102 cm. Pisua: 3-3,5 Kg.

ZERTZETA ARRRUNTA

(*Anas crecca*)

Tamaina txikiko ahatea, hegan ari denean hegoetako marka berdeengatik bereizten dena. Arrak gaztaina-koloreko burua du, moztorro berdea duena. Sakonera txikik hezegune isiltsuetan aurkitzen da, bertan bere elikagai nagusiak baititu, alegia, haziak eta ornogabe txikiak. Ez da ugaltzen Euskal Herrian. Gorbeiaiko Parkean ale bakan batzuk ikusi dira Saldropoko hezegunean, neguan eta migrazio-paseetan. **NEURRIAK:** 34-38 cm. Pisua: 240-360 g.



BASATEA

(*Anas platyrhynchos*)

Ahatetik ezagunena gure hegaztien artean. Arrak moko horia du eta burua, berde distiratsua, lepoaren oinarrian iduneko zuria du. Gorputza grisaxka da, atzeko mutur eta gaztaina-koloreko bularra izan ezik. Sexu biei ikus dakizkieke hegan ari direnean hegoetako marka urdin bereizgarri batzuk Gogoko ditu lautar landaretzadun ur geldoak, baina zenbaitetan ibai-erretetan ere ugaltzen da. Espezie urria da Gorbeian, Parkeak hezegune eta ur-isuri gutxi batzuk baino ez baititu. Oso gutxi dira habia bertan duten bikoteak eta banatuta daude Saldropo-ko aintziretan, El Troncón-eko urmaelean, Undebe ibaian, Altubeko aintziretan eta



Gorbeiaiko urtegietan. **NEURRIAK:** 55-65 cm. Pisua: 950-1.300 g.

EPER GRISA

(*Perdix perdix*)

Eper txikia; erraz bereizten da aurpegiko kolore laranjagatik, bular grisagatik eta arrek eta zenbait emek sabelean duten ferra itxurako eta gaztaina-koloreko orban nahastezinagatik. Iberiar penintsulako iparraldeko erdiaren hegazti bereizgarria. Sastrakadiak (txilarrak, ipuruak, elorri-triskak...) dituzten eremu irekietan bizi da, 1.100 metroko altueratik gora, eta dentsitate optimoak, 1.800 metroko altueraren inguruan ditu. Euskal Autonomi Erkidegoko mendietan laurogeita hamarreko hamarkadan suntsitu zelarik, espeziearen askatzeak egin dira. Gorbeian, baina ez dirudi populazio bideragarririk finkatu denik. Parkean, duela zenbait urte egindako askatzeetatik iraun duten Eper Gorri (*Alectoris rufa*) ale batzuk ere ikus



daitezke. **NEURRIAK:** 29-31 cm. Pisua: 350-400 g.

GALEPERRA

(*Coturnix coturnix*)

Europako galinazeorik txikiena, eta migrazio-ohiturak dituen bakarra. Harea kolorekoa da, eta gainaldeetan, orban beltzak eta izpil zurixkak izaten ditu. Ar helduak eztarri zuri-beltzagatik bereizten dira. Haren habitat gustukoena soro landuak dira, bereziki zereal-soroak. Gutxiagotan bada ere, atlantiar landazabaletako belardietan ere aurkitzen da. Lehen aleak martxoan heltzen dira Euskal Herrira, baina populazio ugaltzailearen zatirik handienak ez ditu ugaltze-eremuak betetzen apirilera edo maiatzaren hasierara arte. Gorbeiaiko Parkean oso espezie urria da. Zenbait bikote Parkearen arabar isurialdearen inguruan dauden landazabaletan



ugaltzen dira. Inoiz haien kantua entzun da Saldropoko belazeetan. **NEURRIAK:** 16-18 cm. Pisua: 80-150 g.

UROILO ARRUNTA

(*Gallinula chloropus*)

Kolore iluneko hegazti urtarra; hanka luzeak eta berde kolorekoak ditu, goialdeko banda gorria izan ezik. Mokoaren muturra horia izaten da eta gainerakoa gorria, bekotikoz ezutu bereizgarria bezala. Ibiltzen denean, buztana altxatu eta agerian uzten ditu bere buztanpeko estal-luma zuriak. Lautar landaredia duten mota guztietako ur geldoetan bizi da, bai eta ibaien behealdeetan ere. Ingurune hauetan ertzetan eta sakonera txikiko uretan ikusi ohi da. Batez ere landare-materiaz elikatzen da, baina, halaber, intsektuak, barraskiloak eta zizareak ere jaten ditu. Parkean 10-14 bikoteko populazioa bizi dela estimatu da, Saldropoko hezegunean (Zeanuri), Gorbeiaiko urtegietan (Murua), Altubeko urmaelean eta herri honetako golf-zelaitik hurbil dauden aintziretan



sakabanaturik. **NEURRIAK:** 32-35 cm. Pisua: 200-400 g.

UROILANDA HANDIA (*Rallus aquaticus*)

Tamaina ertaineko hegaztia, hanka luze eta indartsua eta buztan labur eta tentea dituena. Atzealdeak arreak izaten dira zirrinta beltzekin; aurregia eta bularra grisaxkak izaten dira, alboek marra zuriak eta beltzak izaten dituzte eta buztanaren behealdean arre horixka. Erraz bereizten da gainerako uroilandetatik (*Porzana spp.*) tamaina handiagoa eta moko gorria izateagatik. Oso ohitura zogiak izaten ditu, baina harea presentzia erraz jabetzen gara ahots indartsuagatik, egunsentian igortzen duen garrasi, hasperen eta purrustada sortagatik alegia. Lautar landaredi tinkoaz (Lezkak, ihiak...) inguratutik dauden eta sakonera txikiko eremuak dituzten hezeguneetan bizi da. Intsektu eta zizareez elikatzen da nagusiki, baina haziak eta fruituak ere jaten ditu. Zenbaitetan, arrain txikiak eta saguak harrapatzen ditu eta arrautzez eta sarraskiaz ere elikatzen da noizik behin. Euskal Autonomi Erkidegoak gordetzen duen Uroilanda handiaren populazioa 200 bikotetatik beherakoa dela dirudi. Hori dela eta, espezie Bakantzat hartu Arriskuan dauden Espezieen Euskadiko Zerrendak. Parkeari dagokionez. Saldropo



zohikaztegi zaharreko hezegunean baino ez da aurkitu eta bertan, espezie honetako bikote bat edo bi ugaltzen direla estimatu da. Hau da, era berean, Uroilanda Txikia (*Porzana pusilla*) aurkitu den Parkeko lurralde bakarra; ziurrenik ezteiaurreko migrazioa egiten ari zen alea.
NEURRIAK: 23-28 cm. Pisua: 90-150 g.

KOPETAZURI ARRUNTA (*Fulica atra*)

Aurrekoa bezala kolore iluneko espezie urtarra da, baina Kopetazuria aurrekoa baino handiagoa eta potoloagoa da. Erraz bereizten da, moko eta bekotikozkutua zuriak dituelako. Gainera, hankek hatz luze gingildunak dituzte, hegan ari denean kanpora ateratzen direnak. Lautar landaredi tinkoa duten ertzak dituzten ur irekietako ohiko espeziea da. Nagusiki landare-materiaz elikatzen da (lezka-zurtoin berdeak, sustraiak, algak...); ertzetan larratu edo bestela, hondotik ateratzen ditu murgilaldi luzeak egin ondoren. Euskal Herriko kopetazuriaren populazio ugaltzailea



100-350 bikotekoa dela estimatu eta horietako gehienak Arabako urtegietan bizi dira. Altubeko golf-zelaitik hurbil dauden aintzirak dira Gorbeia Parkeko ugaltze-toki bakarra, eta bertan 6-10 bikote ugaltzaile bizi direla estimatu da. Kumaldian, etsaitasun handia erakusten dute bere bikotekidea ez diren espezieko beste aleekiko; neguan oso talde handiak era ditzakete. Izan ere, Europaren iparretik eta erditik bide datozen milaka hegaztiak, urtero iragaten dute negua. Urrunagako urtegi hurbilean. Edonola, negua Altubeko aintziretan ematen duen populazioa udakoa baino ere txikiagoa izaten da.
NEURRIAK: 36-38 cm. Pisua: 400-800 g.

KULISKA TXIKIA (*Actitis hypoleucos*)

Hegazti limikola txikia; gibelaldea eta bularra arre-olibakarra ditu eta sabela, zuria. oso baxu hegaldatzen da, ia uraren azalean, hegoak azkar eta arinki astinduz eta planeatze leunekin txandakatuz, tuii-uu-iii hots zorrotza ateratzen duen bitartean. Urbazterretan korrika dabilenean, burua eta buztana balantzaka mugitzen ditu era bereizgarrian. Lohi eta harkoskor ugari tarteak dituzten ibai zabaletan egiten ditu habiak. Badirudi Euskal Autonomi Erkidegoan kuliska txikiak kopuru txikia ugaltzen dela, baina, edonola, ohiko espeziea izaten da urtesaso gehienetan, ibaietan zein itsasadarretan eta bestelako hezeguneetan. Gorbeia Parkean habiarik aurkitu ez bada ere, kuliska hauek askotan ikus daitezke bertako ibaietan eta hezegune txikietan. Zenbaitetan, Kuliska Handiko (*Tringa ochruros*) ale baktarren batekin lagunduta ikusi ohi dira; Kuliska Handia erraz



bereizten da Kuliska Txikitik, hegoen kolore ilunagatik eta ipurtxuntzur ziriarekin kontrastatzen duen gibelaldeagatik.
NEURRIAK: 20-22 cm. Pisua: 40-60 g.

ISTINGOR ARRUNTA (*Gallinago gallinago*)

Bere lumadi kriptiko apartagatik pausaturik dagoe-nean ikusten zaila den espezie urtarra. Gainaldeak arre ilunak dira, krema argi koloreko zirrintaz zeharkaturik. Kolorazioa ez ezik, hegazti honetan nabaria da moko luze eta zuzena eta bai ihes egiteko duen modu berezia: oso azkar mugitzen da sigi-saga, txortx moduko alarma-garrasi zakarra ateratzen duen bitartean. Euskal Herrian paseetan edo negutar gisa aurki daiteke irailetik apirilera arte istilduriko belardietan, ihi-tzetan eta urtegi eta aintziren urbazterretan. Gorbeia Parkean ez da oso ugaria baina zenbait ale ikus daitezke nolabaiteko tamaina duten hezeguneetan (Saldropo, El Troncón,...), nahiz urmael eta lokaztietan. Saldropom behin baino gehiagotan sumatu da neguan. Istingor Txikia ere (*Lynocryptes minumus*); tamaina



txikiagoko espeziea, hegaldi laburragoak egiten dituen eta normalean isila dena.
NEURRIAK: 25-27 cm. Pisua: 100-150 g.

OILAGORRA (*Scolopax rusticola*)

Istingor Arruntaren antzekoa, baina mardulagoa, moko laburragokoa eta gibelaldeko zehar-zirrintarik gabekoa. Begi handiak ditu eta zeharkako marrak kapirotean. Ohitura uzkurra eta lumadi mimetikoa dituelarik, oso hegazti zaila da behatzeko. Neguan, egun-argiko orduetan ezkutaturik egoten da basoko eremurik ospelenean, eta iluntzean, hurbileko larre eta belardi hezeetara joaten da. Urtesaso honetan zizareak dira haien dietaren zatirik garrantzitsuenak. Kumaldian aldiz, egun-argian jarduten du eta basoaren barruan elikatzen da, orduan, beste ornogabe batzuekin osatzen du bere dieta,



batez erei intsektu-larrek. Ale gutxi batzuk ugaltzen dira Euskal Herriko goi-baso hezeetan, batez ere oihanpe garatuko pagadietan. Geldikor diruditen bertako populazio txiki hauekin elkartzen dira urriaren erditik martxoaren erdira arte hegazti migratzaile eta negutarren talde handiak, lurralde gehienean ehiztarien jardueraren helburua direnak. Izan ere, kumaldian pairatzen duten askotuko ehiza eta ehiza-txakurren joan-etorria, eta haien habitataren aldaketa dira bertako populazioen mehatxu nagusia. Gorbeian behin baino gehiagotan ikusi dira espezie honen alak udan, eta beraz, Parkearen gune jakin batzuetan ugaltzen dela pentsa daiteke.
NEURRIAK: 33-35 cm. Pisua: 300-320 g.



Bilbao

KULTURA SENTITU SIENTE LA CULTURA

2022KO KULTURA PROGRAMAZIOA
PROGRAMACIÓN CULTURAL 2022

WWW.BILBAOKULTURA.EUS